



**SOLDATAK, PENTSIOAK,  
LANGABEZIA  
PRESTAZIOAK ETA  
GIZARTE  
AURREIKUSPENEKO  
ERRESKATEAK  
GIPUZKOAN**

**2017**



# AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	2
1.1	Datuen jatorria .....	2
1.2	Aztertutako kontzeptuak.....	3
1.3	Aztertutako kolektiboak .....	4
1.4	Aztertutako aldagaiak.....	5
2.	IKUSPEGI OROKORRA .....	7
3.	SOLDATAK.....	10
3.1.	Soldatak sexuaren arabera.....	14
3.2.	Soldatak nazionalitatearen arabera .....	17
3.3.	Soldatak adinaren arabera .....	20
3.4.	Soldatak LGSaren tarteen arabera .....	21
3.5.	Soldatak ordaintzailearen ikuspegitik.....	22
3.5.1.	Izaera juridikoaren arabera.....	22
3.5.2.	Langile kopuruaren arabera.....	26
3.5.3.	Sektoreen arabera.....	27
4.	PENTSIOAK .....	32
4.1	Pentsioak sexuaren arabera .....	33
4.2.	Pentsioak adinaren arabera.....	37
4.3.	Pentsioak Gutxieneko Pentsioaren tarteen arabera.....	38
5	LANGABEZIA PRESTAZIOAK .....	39
5.1.	Langabezia prestazioak sexuaren arabera .....	40
5.2.	Langabezia prestazioak nazionalitatearen arabera.....	42
5.3.	Langabezia prestazioak adinaren arabera .....	43
5.4.	Langabezia prestazioa LGSren tarteen arabera.....	44
6	GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERRESKATEAK.....	45
6.1.	Errenta moduan egindako erreskateak .....	45
6.1.1.	Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera..	46
6.1.2.	Errenta moduan egindako erreskateak adinaren arabera .	49
6.1.3.	Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera.....	49
6.1.4.	Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak .....	50
6.2.	Kapital moduan egindako erreskateak .....	52
6.2.1.	Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera..	53
6.2.2.	Kapital moduan egindako erreskateak adinaren arabera..	55
6.2.3.	Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera .....	56
6.2.4.	Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak .....	57
6.3.	Errenta moduan eta kapital moduan egindako erreskateak .....	59



## 1. SARRERA

Txosten honen helburua da Gipuzkoako lan-merkatuaren ikuspegi orokor bat ematea, eta aldi berean denboran zehar izan duen bilakaera ikustea.

Gainera, eta berritasun bezala, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate (BGAE), Pentsio Plan (PP), Mutualitate eta antzeko sistemetatik egindako erreskateen zenbatekoak aztertuko dira.

Azterketa bi alderditik egingo da:

- Soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioak eta Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak jasotzen dituzten pertsonak aztertuta.
- Soldatak ordaintzen dituzten entitateak aztertuta.

### 1.1 Datuen jatorria

Aztertzen diren datuak 190 ereduari aitortutakoak dira: Lan etekinen, ekonomi jardueren etekinen eta sarien gaineko atxikpenak eta konturako sarrerak (urteko laburpena).

Aitorpen hori soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioa eta Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak ordaintzen dituzten erakunde guztiek aurkezten dute, edozein izanik ere bere nortasuna, bere jarduera, tamaina edo izaera publiko/pribatua.

Aitortzaile bakoitzak errenten hartzaileen zerrenda bat aurkezten du: ordaindutako zenbatekoa, kontzeptua... Zerrenda horietan PFEZri lotutako errentak lortzen dituzten pertsona guztiak agertzen dira, nahiz eta errentak salbuetsiak egon, zenbateko minimora heltzen ez delako atxikipenik ez egin...

Jasotzen diren datuetan agertzen ez direnak etxeetan lan egiten dutenen soldatak dira, eta hau horrela da ordaintzailea ez delako enpresaria eta 190 ereduak ez duelako aurkezten.

Beraz, informazioa osoa eta zehatza da. Eta horren bidez, bai Gipuzkoako biztanleek jasotako eta bai Gipuzkoako enpresek sortutako lan errenten kuantifikazioa eta deskribapena lortzen da.

Dena den, bai oro har eta gehienbat batez bestekoak aztertzerakoan, kontuan izan behar da, nahasita agertzen direla urte osoa lan egiten dutenen datuak eta aldi baterako kontratuak dituztenen datuak, lanaldi osoa egiten dutenena eta lanaldi partzialekoak...

## 1.2 Aztertutako kontzeptuak

- **Laneko errentak**

190 ereduan A eta L15 gakoarekin datozen errentak.

- **Pentsioak**

190 ereduan B gakoa (BGAEetatik, pentsio planetatik eta gainerako aurreikuspen sistemetatik jasotako prestazioei dagokien azpigakoa izan ezik), eta L06 eta L07 gakoarekin datozen errentak. Hau da, Gizarte Segurantzatik, haren ordeko entitateetatik eta Klase Pasiboan erregimenetatik jasotako pentsio publikoak.

- **Langabezia prestazioak**

190 ereduan C eta D gakoarekin datozen errentak.

- **Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak**

190 ereduan B02 eta L18 gakoak (2014tik aurrera B20, B21, B22, B23, B24, B25 eta B26 gakoak) dutenak: Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate, Pentsio Plan, Mutualitate eta antzeko sistemetatik jasotako erreskateen zenbatekoak.

Hemen bi eratako erreskateak aztertuko dira:

- Errenta moduan jasotakoak.
- Kapital moduan jasotakoak.

Azterketatik kanpo geratzen dira 190 ereduan agertzen diren beste errenta mota batzuk; esaterako, jarduera ekonomikoko etekinak (nekazaritza edo profesionalak), sariak, irudi-eskubideen lagapena, kontseilari eta administraritza dietak.



## 1.3 Aztertutako kolektiboak

- **Jasotzaileak**

Jasotzailearen ikuspegitik bakarrik kontuan hartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan helbideratuak dauden pertsonen datuak, nahiz eta ordainketa beste lurralde batean dagoen ordaintzaile batek egina izan.

190 ereduaren berezitasunetako bat aniztasuna da: gerta daiteke pertsona batek urte batean zehar bi ordaintzaile edo gehiagoren ordainketak jasotzea, edota errenta mota desberdinak jasotzea (laneko errenta eta langabezia prestazioa; laneko errenta eta pentsioa...).

Orduan, hiru kolektibo desberdintzen dira:

1. **Soldatapekoak:** laneko errentak lortzen dituztenak. Zer gertatzen da pertsona batek ordaintzaile bat baino gehiagotik laneko errentak jasotzen dituenean? Kasu horietan, pertsona hori proportzionalki zenbatuko da entitate bakoitzean soldatapeko bezala: entitate bakoitzak ordaindutakoa, zati laneko errenta osoak. Esaterako: pertsona batek 40.000 euro jasotzen ditu urtean: 10.000 euro A enpresatik eta 30.000 euro B enpresatik. Oro har, soldatapeko 1 bezala kontabilizatuko da; baina adibidez jardueraren arabera sailkatzerakoan A enpresan 0,25 soldatapeko bezala hartuko da ( $10.000/40.000$ ), eta B enpresan 0,75 bezala ( $30.000 / 40.000$ ).
2. **Langabetuak:** langabezia-prestazioak jasotzen dituztenak.
3. **Pentsiodunak:** pentsioak jasotzen dituztenak, B02 gakoeko errentak jasotzen dituztenak izan ezik (2014tik aurrera B20, B21, B22, B23, B24, B25 eta B26 gakoak).

- **Ordaintzaileak**

Laneko errentei dagokionez, azterketa beste ikuspegi batetik ere egiten da: ordaintzailearen ikuspegitik. Kasu horretan kontuan hartzen dira Gipuzkoan lan-zentroa duten ordaintzaileek ordaintzen dituzten soldata guztiak, nahiz eta jasotzaileak beste lurralde batean helbideratuak egon.



## **1.4 Aztertutako aldagaiak**

Txostenean zehar aztertuko diren aldagaiak honako hauek dira:

- Jasotzaile kopurua
- Errentak guztira
- Batez besteko errenta
- Ordaintzaile kopurua

### **Sailkapenak**

Datuak azaltzerakoan zenbait sailkapen erabiliko dira:

- Jasotzailearen adina
- Jasotzailearen sexua
- Jasotzailearen nazionalitatea
- Errentaren tartea
- Ordaintzailearen jarduera sektorea
- Ordaintzailearen izaera juridikoa
- Ordaintzailearen tamaina (langile kopuruaren arabera)



		<b>Aldagaiak</b>		<b>Sailkapenak</b>	
KOLEKTIBOAK	ENPLEGUA	JASOTZAILEAK	Soldatapeko kopurua Soldatak guztira Batez besteko soldata	Adina Sexua  Errenta tartea Nazionalitatea Udala Eskualdea	
		ORDAINTZAILEAK	Ordaintzaile kopurua Jasotzaile kopurua Soldatak guztira Batez besteko soldata	Izaera juridikoa Jarduera sektorea Tamaina	
	LANGABEZIA-PRESTAZIOA	Langabetu kopurua Prestazioaren batez bestekoa Prestazioa guztira	Sexua Adina Prestazioaren tartea Nazionalitatea Eskualdea		
	PENTSIOAK	PENTSIO PUBLIKOAK; MUTUALITATEAK ETA LAGUN-ARO INSS ORDEZKATZEN DUTENEAN	Pentsiodun kopurua Pentsioaren batez bestekoa Pentsioa guztira	Sexua Adina Pentsioaren tartea Nazionalitatea Eskualdea	
	BGAE - PP – MUTUALITATE ETA ANTZEKO SISTEMEN ERRESKATEAK: ERRENTA MODUAN ETA KAPITAL MODUAN	Pertsona kopurua Erreskateen zenbatekoa Erreskateen batez bestekoa	Sexua Adina Erreskatearen tartea Eskualdea		

## 2. IKUSPEGI OROKORRA

2017. urtean 491.169 gipuzkoarrek jaso dituzte soldatak, pentsioak edota langabezia prestazioak. Guztira jasotako zenbatekoa 11.100 milioi euro dira, hau da, 22.598 euro batez beste.


- Taularen lehenengo zutabean 2017an zehar soldatak bakarrik jaso dituztenak azaltzen dira. Gutxi gora behera erdia dira (268.052 pertsona; %54,5).
- Pentsioak bakarrik (2. zutabea) 161.231 pertsonak jaso dituzte, guztien %32,8.
- 3. zutabean langabezi prestazioak bakarrik jaso dituztenak aztertzen dira: 9.415 pertsonak (guztien %1,9).
- Lana egiteagatik soldata eta sistema publikoko pentsioa 17.181 pertsonak (guztien %3,4) jaso dute (4. zutabea).
- 5. zutabean laneko soldata eta langabeziako prestazioa jaso dituztenak daude: 33.208 pertsona (guztien %6,7).
- Pentsioa eta langabezia prestazioa 1.331 pertsonak jaso dute (6. zutabea).
- Eta hiru etekin motak (lana, pentsioa eta langabezia prestazioa) 751 pertsonak jaso dute (7. zutabea).

**Taula 1. 2017ko datuen ikuspegi orokorra**

		Soldatapekoak (1)	Pentsiodunak (2)	Langabetuak (3)	Soldatapekoak eta pentsiodunak (4)	Soldatapekoak eta langabetuak (5)	Pentsiodunak eta langabetuak (6)	Soldatapekoak, pentsiodunak eta langabetuak (7)	GUZTIRA
SOLDATAK	Personak	268.052			17.181	33.208		751	319.192
	Zenbatekoa guztira (€)	7.085.261.224			246.078.471	450.907.802		8.096.736	7.790.344.232
	Batez bestekoa (€)	26.432			14.323	13.578		10.781	24.406
PENTSIOK	Personak		161.231		17.181		1.331	751	180.494
	Zenbatekoa guztira (€)		2.818.657.771		328.211.536		12.662.404	7.387.580	3.166.919.292
	Batez bestekoa (€)		17.482		19.103		9.513	9.837	17.546
LANGABEZIA PRESTAZIOAK	Personak			9.415		33.208	1.331	751	44.705
	Zenbatekoa guztira (€)			45.856.392		89.909.481	4.419.368	2.158.852	142.344.094
	Batez bestekoa (€)			4.871		2.707	3.320	2.875	3.184
GUZTIRA	Personak	268.052	161.231	9.415	17.181	33.208	1.331	751	491.169
	Zenbatekoa guztira (€)	7.085.261.224	2.818.657.771	45.856.392	574.290.007	540.817.283	17.081.773	17.643.169	11.099.607.619
	Batez bestekoa (€)	26.432	17.482	4.871	33.426	16.286	12.834	23.493	22.598



**Grafikoa 1 – Jasotzaileen banaketa etekin motaren arabera eta talde esanguratsuenen batez bestekoa**




2017an soldatak bakarrik jaso zituzten pertsonen batez besteko soldata 26.432 euroko izan zen; pentsioak bakarrik jaso zituztenen batez besteko pentsioa 17.482 eurokoa izan zen; eta langabezi prestazioak bakarrik jaso zituztenen batez besteko prestazioa 4.871 eurokoa.

Jasotako zenbatekoari dagokionez, 11.100 milioi eurotik, gehiengo nagusia (7.790 milioi euro; %70,2) soldatak dira; pentsioak guztiaren %28,5


dira (3.167 milioi euro), eta langabezia prestazioak 142 milioi euro (guztia %1,3).

**Grafikoa 2 – Etekinen banaketa etekin motaren arabera**



Etekin motaren arabera, batez bestekori handiena laneko etekinek dute, 24.406euro; pentsioen batez bestekoa 17.546 eurokoa da; eta langabezia prestazioena 3.184 eurokoa.

**Grafikoa 3 – Etekinen mota bakoitzaren batez bestekoa**



### 3. SOLDATAK

2017. urtean laneko soldatak 319.192 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %2,7 gehiagok. Zenbateko osoa, %2,4 igo da baita ere 2016arekin alderatuta. Pertsonako batez bestekoa 24.406 euro izan dira.

**Taula 2. Soldaten bilakaera**

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
<b>2008</b>	312.259		7.478.649.226		23.950	
<b>2009</b>	302.124	-3,2	7.284.519.653	-2,6	24.111	0,7
<b>2010</b>	297.507	-1,5	7.222.796.657	-0,8	24.278	0,7
<b>2011</b>	295.411	-0,7	7.284.565.382	0,9	24.659	1,6
<b>2012</b>	299.629	1,4	7.218.677.176	-0,9	24.092	-2,3
<b>2013</b>	292.767	-2,3	7.122.472.681	-1,3	24.328	1,0
<b>2014</b>	295.515	0,9	7.173.282.038	0,7	24.274	-0,2
<b>2015</b>	304.835	3,2	7.404.618.191	3,2	24.291	0,1
<b>2016</b>	310.811	2,0	7.610.321.945	2,8	24.485	0,8
<b>2017</b>	319.192	2,7	7.790.344.232	2,4	24.406	-0,3
<b>2008/2017</b>		2,2		4,2		1,9

Zenbatekoak eurotan

Azken hamar urteetan soldatak jaso dituzten pertsona kopurua %2,2 igo da. Punturik altuena 2017n eman da: 319.192 soldatapeko.

Jasotako soldatei dagokionez, %4,2 igo dira 2008. urtetik. Daturik handiena 2017. urtean lortu zen (7.790 milioi euro).

Pertsonako batez besteko soldata %1,9 igo da hamar urte hauetan: 23.950 euroatik 24.406 euro tara. Erreferentzia moduan, aipatu daiteke epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %14,5 igo dela.

Mediana edo erdiko balioa aztertuta, batez besteko soldataren antzeko bilakaera izan duela ikusi daiteke; baina 2008-2017 epealdian medianak metatutako igoera batez bestekoa baino 3,0 puntu txikiagoa izan da. Mediana %1,1 jaitsi da eta batez bestekoa %1,9 igo. Medianaren igoera txikiago horrek erakusten du soldata baxuak, soldata altuak baina gutxiago hazi direla.



**Taula 3. Medianaren bilakaera (eurotan)**

	Zenbatekoa	Bar. %
<b>2008</b>	21.708	
<b>2009</b>	21.816	0,5
<b>2010</b>	21.904	0,4
<b>2011</b>	22.322	1,9
<b>2012</b>	21.934	-1,7
<b>2013</b>	21.867	-0,3
<b>2014</b>	21.805	-0,3
<b>2015</b>	21.716	-0,4
<b>2016</b>	21.745	+0,1
<b>2017</b>	21.478	-1,2
<b>2008/2017</b>		-1,1

Soldatak nola banatzen diren ezagutzeko, bere banaketa aztertzen da dezilen arabera. Horiek osatzen dira, soldata jasotzaile guztiak soldata txikienetik handienara ordenatuta, eta pertsona kopuru berdineko taldeak osatuz. Horrela, talde edo dezila bakoitzak soldata jasotzen duten pertsona kopuru osoaren %10a suposatzen du: lehenengo dezilan (D1) sartzen dira soldatarik txikienak jasotzen duten %10a, eta azken dezila (D10) osatuta dago soldatarik handienak jasotzen duten pertsonen %10arekin.

**Taula 4. Soldaten banaketa portzentuala dezilen arabera**

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>D1</b>	0,7	0,6	0,7	0,6	0,6	0,5	0,5	0,4	0,4	0,4
<b>D2</b>	2,7	2,5	2,6	2,5	2,5	2,3	2,2	2,1	2,1	2,1
<b>D3</b>	4,9	4,7	4,7	4,6	4,6	4,4	4,3	4,2	4,2	4,2
<b>D4</b>	6,8	6,8	6,7	6,7	6,6	6,5	6,3	6,2	6,2	6,2
<b>D5</b>	8,4	8,4	8,3	8,4	8,3	8,2	8,2	8,1	8,0	8,0
<b>D6</b>	9,9	9,9	9,9	9,9	9,9	9,8	9,9	9,8	9,7	9,7
<b>D7</b>	11,6	11,6	11,6	11,6	11,7	11,7	11,7	11,8	11,7	11,6
<b>D8</b>	13,5	13,6	13,7	13,7	13,7	13,9	14,0	14,0	14,0	13,9
<b>D9</b>	16,1	16,3	16,3	16,3	16,3	16,6	16,7	16,8	16,8	16,8
<b>D10</b>	25,5	25,8	25,6	25,7	25,8	26,0	26,3	26,6	26,8	27,0

Horrela, 2017. urtean soldatarik baxuenak jasotzen dituztenen %10aren soldatak (D1 dezila), gipuzkoar guztiek jasotako soldaten %0,4 metatu dute. Aldiz, soldatarik altuenak jaso dituztenek (D10 dezila), soldata osoen %27,0a metatu dute.

2008-2017 epealdian sei lehenengo taldeak, hau da, soldata txikienak jasotzen dituztenak, jaitsi egiten dira portzentualki eta lau azkeneko taldeak igo. Gainera gehien jaisten den taldea soldata txikienak dituztenena da (D1). Aldiz, gehiena igotzen diren dezilak D8, D9 eta D10 dira.



**Taula 5. Bariazio portzentuala dezilen arabera**

	2008/2017
D1	-42,9
D2	-22,2
D3	-14,3
D4	-8,8
D5	-4,8
D6	-2,0
D7	0,0
D8	3,0
D9	4,3
D10	5,9

Medianari dagokionez, 2008-2017 epealdian bost lehenengo dezilen mediana jaitsi egiten da, eta, aldiz, bost azkeneko dezilena igo egiten da. Gainera, gehien jaisten dena soldata txikiak dituztenena da (D1). Aldiz, D9 dezilaren mediana da gehien igotzen dena. 2017. urtean, 2016. urtearekin alderatuta, dezila guztietan igotzen da mediana, D1, D2 eta D9 izan ezik. Jaitsiera portzentual handiena bosgarren dezilan eman da.

**Taula 6. Medianaren balioa dezilen arabera**

	2008	2009	2014	2015	2016	2017	2008
D1	1.393	1.322	1.021	802	851	987	1.393
D2	6.228	5.854	5.286	5.073	5.182	5.215	6.228
D3	11.563	11.214	10.296	10.154	10.377	10.304	11.563
D4	16.346	16.253	15.380	15.178	15.270	15.076	16.346
D5	19.987	20.094	19.834	19.687	19.690	19.417	19.987
D6	23.554	23.648	23.899	23.841	23.844	23.574	23.554
D7	27.491	27.639	28.465	28.532	28.569	28.323	27.491
D8	32.166	32.530	33.861	33.983	34.138	33.900	32.166
D9	38.031	38.854	40.447	40.636	40.912	40.980	38.031
D10	52.632	53.229	54.587	54.892	55.430	55.311	52.632

**Taula 7. Medianaren bariazio portzentuala dezilen arabera**

	2008/2017
D1	-29,2
D2	-16,3
D3	-10,9
D4	-7,8
D5	-2,9
D6	0,1
D7	3,0
D8	5,4
D9	7,8
D10	5,1



Soldata banaketaren berdintasuna/ezberdintasuna aztertzeko beste modu bat, dezilen arteko ratioen bidez da.

- Soldaten D10/D1 erlazioak alderatzen du, goiko dezilan (soldata handienak) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko dezilan (soldata txikienak) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2017an 60,5eko ratio batek esan nahi du, soldata handieneko populazioaren %10ak jasotzen dituzten soldatak, soldata txikieneko populazioaren %10ak jasotzen dituztenak baino 60,5 aldiz handiagoak direla.
- Soldaten S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi deziletan (D9+D10) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko bi deziletan (D1+D2) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2017an 17,0ko ratio batek esan nahi du, soldata handieneko populazioaren %20ak jasotzen dituzten soldatak, soldata txikieneko populazioaren %20ak jasotzen dituztenak baino 17,0 aldiz handiagoak direla.

**Taula 8. Dezilen arteko ratioak (%)**

	2008	2017	bariazioa 2008/2017
<b>Soldatak D10/D1</b>	38,9	60,5	55,5
<b>Soldatak S80/S20</b>	12,6	17,0	34,9
<b>Mediana D10/D1</b>	37,8	56,0	48,1
<b>Mediana S80/S20</b>	11,3	16,7	47,7

- Medianaren D10/D1 erlazioak alderatzen du, goiko dezilan (soldata handienak) dauden pertsonen soldataren mediana, beheko dezilan (soldata txikienak) dauden pertsonen soldataren medianarekin. 2017an 56,0ko ratio batek esan nahi du, D10 dezilaren (soldata handieneko populazioaren %10a) mediana, D1 dezilaren (soldata txikieneko populazioaren %10a) mediana baino 56,0 aldiz handiagoa dela.
- Medianaren S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi deziletan (D9+D10) dauden pertsonen soldataren mediana, beheko bi

dezilatan (D1+D2) dauden pertsonen soldataren medianarekin. 2017an 16,7ko ratio batek esan nahi du, goiko dezilen (soldata handieneko populazioaren %20a) mediana, beheko dezilen (soldata txikieneko populazioaren %20a) mediana baino 16,7 aldiz handiagoa dela.


2008-2017 epealdian ratio guztiak modu garrantzitsuan handitu ziren. D10/D1 erlazioaren kasuan, soldaten ratioa %55,5 handitu zen eta medianarena %48,1. S80/S20 erlazioan, igoera %34,9 eta %47,7 izan zen, hurrenez hurren.

### 3.1. Soldatak sexuaren arabera

Jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2017. urteko 319.192 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 10.096ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %3,2ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Soldatak jasotzen dituzten guztietatik, %46,6 emakumezkoak dira, eta beste %53,4 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek guztiaren %39,5 jasotzen dute, eta gizonezkoek %60,5.

**Grafikoa 4 – Soldaten banaketa sexuaren arabera -2017**



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezko soldatapekoen batez bestekoa 21.007 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 28.052 eurokoa.

### Grafikoa 5 – Soldaten batez bestekoa sexuaren arabera -2017



Azkeneko hamar urteetan emakumezkoen parte hartzea lan merkatuan nabarmen handitu da: 2008an 131.331 emakume ziren laneko soldatak jasotzen zituztenak; 2017an kopuru hori 143.916ra igo da, hau da, %9,6 gehiago. Gizonezkoak, berriz, 169.995tik 165.180ra pasa dira (-%2,8). Urtez urteko bariazioak aztertuz gero, soldatak jasotzen dituzten emakumezko kopurua 2009an eta 2013an bakarrik jaitsi zen; aldiz, krisia hasi zenetik gizonezko soldatapeko kopurua etengabe jaitsi da 2013. urte arte. 2014. urtetik aurrera emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua igo egin da (2017an %2,9 igo da emakumezkoen kopurua eta %2,4 gizonezkoena).

**Taula 9. Soldatapekoen bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2008</b>	131.331		169.995	
<b>2009</b>	129.562	-1,3	163.333	-3,9
<b>2010</b>	129.579	0,0	159.900	-2,1
<b>2011</b>	129.939	0,3	157.491	-1,5
<b>2012</b>	130.619	0,5	157.298	-0,1
<b>2013</b>	128.699	-1,5	152.262	-3,2
<b>2014</b>	131.354	2,1	153.948	1,1
<b>2015</b>	135.184	2,9	156.927	1,9
<b>2016</b>	139.823	3,4	161.284	2,8
<b>2017</b>	143.916	2,9	165.180	2,4
<b>2008/2017</b>		9,6		-2,8

Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen pisua soldatapeko guztien artean 3,0 puntu igo da azken hamar urteetan: 2008an soldatak jasotzen zituzten pertsona guztien %43,6 zen emakumezkoa, eta 2017an, lehen aipatutako %46,6ra iritsi dira. Ondorioz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %56,4 izatetik %53,4 izatera pasa dira.



Kopuruaren bilakaera horrek isla izan du zenbatekoetan. Horrela, 2008an emakumezkoek jasotako soldatak 2.617 milioi euro izan ziren bitartean, 2017an 3.023 milioi euro izan dira; hau da, %15,5 gehiago. Gainera, taulan ikusten denez, 2012 eta 2013 urteetan izan ezik, beste guztietan bariazio positiboak izan dituzte.

**Taula 10. Soldaten bilakaera sexuaren arabera (milioi eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2008	2.617		4.716	
2009	2.672	2,1	4.478	-5,0
2010	2.699	1,0	4.402	-1,7
2011	2.731	1,2	4.431	0,7
2012	2.706	-0,9	4.346	-1,9
2013	2.701	-0,2	4.239	-2,5
2014	2.738	1,4	4.294	1,3
2015	2.841	3,8	4.406	2,6
2016	2.939	3,4	4.547	3,2
2017	3.023	2,9	4.634	1,9
2008/2017		15,5		-1,7

Gizonezkoak jasotako soldatak %1,7 jaitsi dira hamar urte hauetan: 4.716 milioi eurotik 4.634 eurora. Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen soldaten pisua 3,8 puntu igo da hamar urte hauetan: 2008ko 35,7tik lehen aipatutako %39,5ra. Eta gizonezkoena %64,3tik %60,5ra pasa da.

**Taula 11. Batez besteko soldaten bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**


	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2008	19.927		27.740	
2009	20.624	3,5	27.419	-1,2
2010	20.829	1,0	27.527	0,4
2011	21.014	0,9	28.138	2,2
2012	20.713	-1,4	27.627	-1,8
2013	20.990	1,3	27.840	0,8
2014	20.846	-0,7	27.894	0,2
2015	21.018	0,8	28.076	0,7
2016	21.019	0,0	28.194	0,4
2017	21.007	-0,1	28.052	-0,5
2008/2017		19,1		10,8

2008tik 2017ra emakumezko soldatapekoen batez bestekoa %19,1 igo da: 19.927 eurotik 21.007 eurora. Gizonezko soldatapekoena, berriz, %10,8 igo da: 27.740 eurotik 28.052 eurora.

Sexuen arteko batez bestekoaren arrailak gora-behera handiak izan ditu azken hamar urte hauetan:

- 2008. urtean 7.812 eurokoa zen. Horrek adierazten du emakumezkoen soldata gizonezkoena baino %28,2 txikiagoa zela.
- 2008–2017 epealdian, 2011., 2014., 2015. eta 2016. urteak izan ezik, arraila gutxitu egin zen. Azken urte honetan 7.045 eurokoa da. Nahiz eta balio absolutuetan alde handirik ez egon 2008ko zenbatekoarekin (7.812 euro), balio erlatiboetan aztertuta arraila 3,1 puntu jaitsi da: 2008ko %28,2tik 2017ko %25,1ra.

**Grafikoa 6– Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak)**



### 3.2. Soldatak nazionalitatearen arabera

Nazionalitatea definitzen da herritar bat eta Estatu baten arteko lege harreman berezi gisa; horrela, espainiar nazionalitatea dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egingo dugu. Sailkapen hori egiten da, NANaren lehen letraren arabera: X edo Y atzerritarrentzat, eta beste letra guztiak espainiarrentzat.

Horrela, Gipuzkoan bizi diren soldata jasotzailearen nazionalitateari erreparatzen badiogu, gehiengo nagusia bertakoa dela ikusten da: 2017an %93,8 dira bertakoak eta beste %6,2 atzerritarrak.

**Taula 12. Soldatapekoen bilakaera nazionalitatearen arabera**

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
<b>2008</b>	295.826		16.433	
<b>2009</b>	285.932	-3,3	16.192	-1,5
<b>2010</b>	281.744	-1,5	15.763	-2,7
<b>2011</b>	279.358	-0,8	16.053	1,8
<b>2012</b>	283.325	1,4	16.304	1,6
<b>2013</b>	277.800	-2,0	14.967	-8,2
<b>2014</b>	280.398	0,9	15.117	1,0
<b>2015</b>	289.043	3,1	15.792	4,5
<b>2016</b>	293.351	1,5	17.460	10,6
<b>2017</b>	299.545	2,1	19.647	12,5
<b>2008/2017</b>		1,3		19,6

Dena den azken hamar urteetan atzerritarren partaidetza era garrantzitsuan handitu da: 2008an 16.433 pertsona ziren atzerritarrak, eta 2017an 19.647 dira; hau da, %19,6 gehiago. Kriaren eraginez kopurua mantendu egin da, eta 2013 jaitsiera nabarmena eman da. 2014. urtean goranzko joera hasi da eta 2017an epealdiko kopuru handiena jaso du.

Atzerritarrek jasotako soldatak ere nabarmen handitu dira azken hamar urteetan: 2008an 210 milioi euro jaso zituzten, eta 2017an, berriz, 251 milioi euro (+%19,6). Kriaren ondorioz, eta 2011tik aurrera jaisten hasten da. 2014. urtean goranzko joera hasi da eta 2017an epealdiko kopuru handiena jaso du.

**Taula 13. Soldaten bilakaera nazionalitatearen arabera  
(milioi eurotan)**

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
<b>2008</b>	7.269		210	
<b>2009</b>	7.079	-2,6	205	-2,0
<b>2010</b>	7.017	-0,9	206	0,2
<b>2011</b>	7.070	0,8	215	4,4
<b>2012</b>	7.008	-0,9	211	-1,9
<b>2013</b>	6.931	-1,1	192	-9,1
<b>2014</b>	6.978	0,7	195	1,7
<b>2015</b>	7.200	3,2	205	5,0
<b>2016</b>	7.388	2,6	222	8,4
<b>2017</b>	7.540	2,0	251	13,0
<b>2008/2017</b>		3,7		19,6


Dena den, atzerritarrek izan duten bilakaera ikusgarri horrek ez du eragin garbirik jasotako batez besteko soldatan: aztertutako hamar urteetan %12,3 igo da (12.758 eurotik 12.710 eurora), bertakoen batez besteko soldata %18,6 igo den bitartean (21.230 eurotik 25.186 eurora).

Bi taldeen arteko arraila 2016. urtean 12.476 eurokoa izan da; horrek esan nahi du atzeritarren soldata bertakoena baino %49,5 txikiagoa dela. Arraila hori azken hamabi urteetan ia-ia etengabe handitu egin da.

**Taula 14. Batez besteko soldaten bilakaera nazionalitatearen arabera (eurotan)**

	Bertakoak	Bar. %	Atzeritarrak	Bar. %
2008	24.572		12.758	
2009	24.758	0,8	12.691	-0,5
2010	24.905	0,6	13.062	2,9
2011	25.306	1,6	13.394	2,5
2012	24.734	-2,3	12.936	-3,4
2013	24.949	0,9	12.809	-1,0
2014	24.887	-0,2	12.897	0,7
2015	24.910	0,1	12.962	0,5
2016	25.186	1,1	12.710	-1,9
2017	25.170	-0,1	12.766	0,4
2008/2017		2,4		0,1

**Grafikoa 7- Nazionalitateen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak)**



### 3.3. Soldatak adinaren arabera

Jasotzaileen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2017. urteko 319.192 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 10.431aren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %3,3ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Normala den bezala, jasotzaile kopuruaren gehiengoak (%72,9) 26-55 urte tartean kokatzen da. Oso gutxi dira 18 urtetik beherakoak (%0,2), eta 19-25 tartean daudenak kopuru osoaren %7,4 dira (22.828 pertsona). 56 eta 65 urte bitartean 54.166 soldatapeko daude (guztien %17,5); eta 65 urtetik gora 6.037 pertsona daude (%2,0).

**Taula 15. Soldatak adin tarteen arabera - 2017**

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<18	589	0,2	1.044.580	0,0	1.773
19-25	22.828	7,4	168.334.930	2,2	7.374
26-35	55.315	17,9	1.111.149.586	14,5	20.088
36-45	87.468	28,3	2.260.473.941	29,4	25.843
46-55	82.358	26,7	2.423.267.947	31,5	29.424
56-65	54.166	17,5	1.633.349.224	21,3	30.155
> 65	6.037	2,0	83.200.468	1,1	13.782
<b>Guztira</b>	<b>308.761</b>	<b>100,00</b>	<b>7.680.820.675</b>	<b>100,0</b>	<b>24.876</b>

Zenbatekoak eurotan

Soldaten zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: %75,4a metatzen dute 26 eta 55 urte bitartekoak; gazteenak (25 urtetik beherakoak) soldata osoen %2,2 jasotzen dute, eta zaharrenak (55 urtetik gorakoak) %22,4a.

Dena den, adierazgarria da nola handitzen den batez besteko soldata adinean aurrera goazen neurrian. Horrela, zenbatekorik altuena 56-65 urteko soldatapekoak lortzen dute: 30.155 euro.

Tarteen arabera bi salto esanguratsu ikusten dira: 19-25 tartetik 26-35 tartera batez bestekoa 12.714 eurotan handitzen da (7.374 eurotik 20.088 eurora); eta 56-65 tartetik 65 urte baino gehiagoko tartera batez bestekoa 16.373 eurotan jaisten da (30.155 eurotik 13.782 eurora).

### 3.4. Soldatak LGSaren tarteen arabera

Jasotako soldata tartetean banatzerakoan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) erabili da. Bere balio 2017. urtean 9.907,8 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, hiru tarte nabarmentzen dira:

- LGSren 0 eta 0,5 arteko soldata jasotzaile guztien %14,5ak jasotzen dute (46.146 pertsona).
- LGSren 2 eta 2,5 arteko soldata jasotzaile guztien %11,7k jasotzen dute (37.335 pertsona).
- LGSren 2,5 eta 3 arteko soldata jasotzaile guztien %11,4k jasotzen dute (36.422 pertsona).

Jasotzaile guztien erdiak baino gehiagok (%57,6) LGSren 2,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 24.770 euro baino gutxiago.

**Taula 16. Soldatak LGSren tarteen arabera – 2017**

Errenta tartea (LGS)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	46.146	14,5	89.466.780	1,1	1.939
0,5 - 1	31.101	9,7	230.920.091	3,0	7.425
1 - 1,5	32.995	10,3	408.915.540	5,2	12.393
1,5 - 2	36.422	11,4	633.710.814	8,1	17.399
2 - 2,5	37.335	11,7	830.405.371	10,7	22.242
2,5 - 3	32.109	10,1	872.657.676	11,2	27.178
3 - 3,5	27.137	8,5	871.607.612	11,2	32.119
3,5 - 4	22.892	7,2	848.920.891	10,9	37.084
4 - 4,5	17.665	5,5	741.977.865	9,5	42.003
4,5 - 5	11.755	3,7	550.760.862	7,1	46.853
5 - 7,5	17.549	5,5	1.021.802.898	13,1	58.226
7,5 - 10	4.016	1,3	336.084.510	4,3	83.686
> 10	2.070	0,6	353.113.320	4,5	170.586
<b>Guztira</b>	<b>319.192</b>	<b>100,00</b>	<b>7.790.344.232</b>	<b>100,00</b>	<b>24.406</b>

Zenbatekoak eurotan

(\*) 2016an Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren balio 9.907,8 eurokoa da

Soldatetan erdiko mailatan metatzen da zenbatekorik gehiena, LGSren 2 eta 7,5 bitartean; eta horien artean aipatzekoa da LGS 5 eta 7,5 bitartean jasotzen dutenak, guztiaren %13,1 metatzen dutela, kopuruan %5,5 direnean.

### 3.5. Soldatak ordaintzailearen ikuspegitik

Txostenaren sarreran aipatu dugun bezala, soldaten analisia bi ikuspegitik egiten da:

- Alde batetik, soldata jasotzen duen pertsonaren bizilekuan oinarritutakoa; orain arte aztertu ditugu Gipuzkoan bizi diren pertsonen datuak, nahiz eta horiek Gipuzkoatik kanpo lan egin.
- Beste alde batetik, puntu honetan aztertuko duguna da Gipuzkoan lan-zentroa duten ordaintzaileak ordaindutako soldatak, nahiz eta jasotzailea Gipuzkoatik kanpo helbideratua egon.

#### 3.5.1. Izaera juridikoaren arabera

2017an 27.100 soldata ordaintzaile daude Gipuzkoan. Gehiengo nagusia sozietateak osatzen dute (%58,1) eta horien artean erantzukizun mugatutako sozietateak nabarmentzen dira (ordaintzaile guztien ia-ia erdia, %47,8). Bigarren talde nagusia pertsona fisikoak dira (%29,1).

Jasotzaileei dagokionez, %37,3k erantzukizun mugatutako sozietateetan lan egiteagatik jasotzen dute soldata; %23,1k sozietate anonimoetan egiteagatik; administrazio publikoetan jasotzaile guztien %14,4k egin du lan; eta kooperatibetan %10,5ak.

**Taula 17. Soldatak izaera juridikoaren arabera – 2017**

Izaera juridikoa	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
<b>Enpresa pertsonalak</b>	<b>9.444</b>	<b>34,8</b>	<b>23.727</b>	<b>7,6</b>	<b>277.097.297</b>	<b>3,7</b>	<b>11.679</b>
- Pertsona fisikoak	7.892	29,1	18.822	6,0	212.483.634	2,8	11.289
- Errenta egozpen erregimenekoak	1.552	5,7	4.905	1,6	64.613.663	0,9	13.172
<b>Sozietateak</b>	<b>15.754</b>	<b>58,1</b>	<b>223.877</b>	<b>71,6</b>	<b>5.392.582.349</b>	<b>71,4</b>	<b>24.087</b>
- Sozietate anonimoak	1.859	6,9	72.352	23,1	2.014.444.066	26,7	27.842
- Erantzukizun mugatutako sozietateak	12.966	47,8	116.427	37,3	2.520.924.144	33,4	21.652
- Kooperatibak	725	2,7	32.899	10,5	799.438.012	10,6	24.300
- Bestelakoak	204	0,8	2.199	0,7	57.776.127	0,8	26.273
<b>Administrazio publikoak</b>	<b>195</b>	<b>0,7</b>	<b>44.901</b>	<b>14,4</b>	<b>1.446.899.205</b>	<b>19,2</b>	<b>32.224</b>
<b>Irabazi asmorik gabeko entitateak</b>	<b>1.707</b>	<b>6,3</b>	<b>20.039</b>	<b>6,4</b>	<b>433.778.560</b>	<b>5,7</b>	<b>21.647</b>
<b>Guztira</b>	<b>27.100</b>	<b>100,0</b>	<b>312.544</b>	<b>100,0</b>	<b>7.550.357.411</b>	<b>100,0</b>	<b>24.158</b>

Zenbatekoak eurotan



Soldaten zenbatekorik gehiena erantzukizun mugatutako sozietateak ordaintzen dituzte, guztiaren %33,4; sozietate anonimoak ere antzeko portzentajea metatzen dute (%26,7); administrazio publikoek soldaten %19,2 ordaintzen dituzte; eta kooperatibak %10,6.

Soldataren batez besteko handiena administrazio publikoetan lan egiten dutenak jasotzen dute: 32.224 euro. Sozietate anonimoetako langileen batez bestekoa 27.842 euroakoa da, eta kooperatibetakoena 24.300 euro. Zenbatekorik txikiak enpresa pertsonaletan lan egiten dutenena da: 11.679 euro.

Beraz, eta laburtuz:

- Ordaintzaile gehienak erantzukizun mugatutako sozietateak dira.
- Jasotzaile gehienak erantzukizun mugatutako sozietateetan egiten dute lan.
- Soldaten zenbatekorik gehiena erantzukizun mugatutako sozietateak ordaintzen dituzte.
- Batez besteko soldatarik handienak administrazio publikoetako langileak jasotzen dituzte.

Ondorengo tauletan azken hamabi urteetan 5 talde nagusiek izan duten bilakaera aztertzen da.

**Taula 18. Jasotzaileen bilakaera izaera juridikoaren arabera**

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2008	24.045		92.883		110.611		31.956		38.769	
2009	23.386	-2,7	86.665	-6,7	106.368	-3,8	29.759	-6,9	40.262	3,9
2010	23.321	-0,3	83.273	-3,9	104.591	-1,7	30.082	1,1	41.300	2,6
2011	22.754	-2,4	79.677	-4,3	102.736	-1,8	31.353	4,2	40.473	-2,0
2012	22.347	-1,8	76.937	-3,4	100.601	-2,1	31.117	-0,8	39.823	-1,6
2013	22.171	-0,8	71.666	-6,9	98.412	-2,2	30.935	-0,6	39.386	-1,1
2014	22.784	2,8	71.135	-0,7	101.959	3,6	30.653	-0,9	40.249	2,2
2015	23.519	3,2	72.192	1,5	107.131	5,1	31.441	2,6	42.140	4,7
2016	23.622	0,4	70.293	-2,6	111.384	4,0	31.736	0,9	44.183	4,8
2017	23.727	0,4	72.352	2,9	116.427	4,5	32.899	3,7	44.901	1,6
2008/2017	-318	-1,3	-20.530	-22,1	5.816	5,3	943	3,0	6.132	15,8



Langile kopuruari dagokionez:

- Enpresa pertsonalak ia-ia etengabe galdu ditu langileak. 2008. urteko 24.045 langiletik 23.727 langilera pasa da hamar urteetan (-%1,3).
- Sozietate anonimoak izan dira langile gehien galdu dutenak. 2008tik aurrera galera nabarmenak dituzte, eta aztertutako hamar urteko epealdian langile kopurua %22,1 jaitسي da (20.530 jasotzaile gutxiago).
- Erantzukizun mugatutako sozietateak dira bilakaera hobea izan dutenak. Hamar urteko epealdiko lehen zatian langile kopurua asko jaitسي zen: langile kopuru txikiena 2013. urtean jasotzen da (98.412 langile), 2008an baino 12.199 gutxiago. Gero, bilakaera positiboa bihurtzen da, eta hamar urteko epealdia 5.816 langile gehiagorekin amaitzen da (+%5,3), eta epealdiko langile kopuru handiena 2017. urtean ematen da.
- Kooperatibetan lan egiten duten pertsona kopurua %2,6 igo da azken hamar urteetan. 2009ko, 2012ko, 2013ko eta 2014ko beharakadak izan ezik, beste urte guztietan igoerak eman dira.
- 2008tik 2017ra administrazio publikoetako langile kopurua %15,8 handitu da. Dena den, 2011, 2012 eta 2013 urteetan beharakadak eman dira, -%2,0 2011n, -%1,6 2012an eta -%1,1 2013an.

**Taula 19. Soldaten bilakaera izaera juridikoaren arabera (eurotan)**

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
<b>2008</b>	303.235.195		2.440.961.478		2.249.746.273		752.379.091		1.271.764.997	
<b>2009</b>	289.805.929	-4,4	2.277.261.625	-6,7	2.152.960.792	-4,3	712.848.499	-5,3	1.363.811.338	7,2
<b>2010</b>	287.132.577	-0,9	2.197.987.978	-3,5	2.130.928.949	-1,0	711.834.469	-0,1	1.369.476.872	0,4
<b>2011</b>	281.811.683	-1,9	2.203.368.942	0,2	2.157.720.191	1,3	754.476.241	6,0	1.356.033.894	-1,0
<b>2012</b>	270.617.825	-4,0	2.165.315.674	-1,7	2.099.720.131	-2,7	743.527.645	-1,5	1.279.309.455	-5,7
<b>2013</b>	255.498.865	-5,6	2.062.480.822	-4,7	2.067.939.902	-1,5	733.482.727	-1,4	1.341.122.222	4,8
<b>2014</b>	254.360.923	-0,4	2.033.101.431	-1,4	2.142.429.873	3,6	735.866.926	0,3	1.353.000.345	0,9
<b>2015</b>	264.056.098	3,8	2.017.382.192	-0,8	2.273.048.843	6,1	769.928.901	4,6	1.383.297.511	2,2
<b>2016</b>	268.437.371	1,7	2.006.884.758	-0,5	2.392.587.031	5,3	793.663.070	3,1	1.420.018.789	2,7
<b>2017</b>	277.097.297	3,2	2.014.444.066	0,4	2.520.924.144	5,4	799.438.012	0,7	1.446.899.205	1,9
<b>2008/2017</b>	-26.137.898	-8,6	-426.517.412	-17,5	271.177.872	12,1	47.058.920	6,3	175.134.208	13,8



Azken hamar urteetan ordaindutako soldatei dagokionez, aztertutako hiru taldek bilakaera positiboa erakusten dute eta bik bilakaera negatiboa:

- Enpresa pertsonalak %8,6ko jaitziera izan dute. 2014 arte jaitzierak eman ziren urtez urte; baina hortik aurrera igoerak eman dira, eta 2017an %3,2 egiten dute gora.
- Sozietate anonimoak bilakaera negatiboa izan dute eta ordaindutako soldata osoak %17,5 jaitzi dira.
- Erantzukizun mugatutako sozietateak ordaindutako soldata osoek krisiaren eraginez beherakadak eman dira 2008tik 2014ra, 2011n izan ezik. 2014-2017 epealdian soldatak %3,6 baina portzentaje handiagoan igotzen dira. Guztira, hamar urteetan %12,1 igo dira.
- Kooperatibak ordaindutako soldata osoen bilakaera aurreko taldeen antzekoa da: jaitziera 2008tik 2014ra, salbuespena 2011. urtea da (+%6,0). 2014tik aurrera soldatak gora egiten dute. Guztira, soldatak %6,3 igo dira hamar urteetan.
- Administrazio publikoetan soldaten doiketa beranduago heldu da: 2010. urte arte igoerak eman dira; 2011n jaitziera txiki bat gertatzen da (-%1,0); eta jaitzierarik handiena 2012an ematen da (-%5,7). 2013an berriro %4,8 igotzen dira soldatak (2012ko jaitzieran zer ikusia izan zuen abenduko ordainketa berezia kendu izanak). Guztira hamar urteko epealdi honetan administrazio publikoek ordaindutako soldata osoak %13,8 handitu dira.

Dena den, azken hamar urteetan soldaten batez bestekoaren portaeran alde batzuk nabari dira. Gehien igo dena erantzukizun mugatutako sozietateetakoa izan da: +%6,5. Ondoren sozietate anonimoetako langileak datoz (+%5,9), eta gero kooperatibatako langileen soldatak (+%3,2). Administrazio publikoetan lan egiten dutenen soldatak %1,8 jaitzi dira 2008tik 2017ra, eta azkenik, enpresa pertsonaletan lan egiten dutenen batez besteko soldata %7,4 jaitzi da.

Kontuan izanda epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %14,5 igo dela, aldeak nabariak dira ordaintzaile motaren arabera. Horrela, hamar urteko epealdi osoan erantzukizun mugatutako sozietateetakoa langileak izan dira erosketa ahalmena gutxien galdu dutenak (-8,0 puntu); sozietate anonimoetakoak 8,6 puntu galdu dituzte; kooperatibatako langileak 11,3 puntu galdu dituzte; administrazio publikoetako langileen batez besteko soldata ia-ia KPI pare igo da 2012.

urtera arte baina epealdian erosketa ahalmen handia galdu dute (-16,3 puntu); eta enpresa pertsonaletako langileak, berriz, erosketa ahalmen gehiago galdu dute, %21,9.

**Taula 20. Soldaten batez bestekoaren bilakaera izaera juridikoaren arabera (eurotan)**

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2008	12.611		26.280		20.339		23.544		32.804	
2009	12.392	-1,7	26.277	0,0	20.241	-0,5	23.954	1,7	33.873	3,3
2010	12.312	-0,6	26.395	0,5	20.374	0,7	23.663	-1,2	33.159	-2,1
2011	12.385	0,6	27.654	4,8	21.002	3,1	24.064	1,7	33.505	1,0
2012	12.110	-2,2	28.144	1,8	20.872	-0,6	23.894	-0,7	32.125	-4,1
2013	11.524	-4,8	28.779	2,3	21.013	0,7	23.710	-0,8	34.051	6,0
2014	11.164	-3,1	28.581	-0,7	21.013	0,0	24.006	1,2	33.616	-1,3
2015	11.228	0,6	27.945	-2,2	21.218	1,0	24.488	2,0	32.826	-2,3
2016	11.364	1,2	28.550	2,2	21.480	1,2	25.008	2,1	32.140	-2,1
2017	11.679	2,8	27.842	-2,5	21.652	0,8	24.300	-2,8	32.224	0,3
2008/2017	-933	-7,4	1.562	5,9	1.313	6,5	756	3,2	-579	-1,8

### 3.5.2. Langile kopuruaren arabera

Soldaten ordaintzaileak dituen langile kopuruaren arabera, gehiengo nagusiak (%61,5) langile 1 eta 3 bitartean ditu. Hurrengo tartean, 4-9 langile, ordaintzaile guztien %21,2a, eta 10-19 langile bitartean %8,8. Beraz, Gipuzkoako ordaintzaile guztien %91,5ek 20 langile baino gutxiago ditu.

Jasotzaile kopuruaren banaketa askoz orekatuagoa da. Dena den, kopururik handiena 500 langile baino gehiago dituzten 46 ordaintzaileetan metatzen da: 74.859 (%24,0).

Batez beste, Gipuzkoako ordaintzaile bakoitzak 11,5 langile ditu.

Ordaindutako soldatek langile kopuruaren antzeko banaketa dute. Hemen ere 500 langiletik gorako ordaintzaileak nagusitzen dira: soldata guztien %28,3 metatzen dute.

**Taula 21. Soldatak langile kopuruaren arabera – 2017**

Tamaina (langile kopurua)	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
1-3	16.676	61,5	26.597	8,5	477.601.504	6,3	17.957
4-9	5.737	21,2	35.068	11,2	712.598.966	9,4	20.321
10-19	2.397	8,8	33.262	10,6	706.885.302	9,4	21.252
20-49	1.449	5,3	43.726	14,0	1.000.039.296	13,2	22.871
50-99	468	1,7	32.693	10,5	796.398.558	10,5	24.360
100 - 249	250	0,9	39.898	12,8	1.049.911.609	13,9	26.315
250- 499	77	0,3	26.441	8,5	670.386.542	8,9	25.354
>=500	46	0,2	74.859	24,0	2.136.535.634	28,3	28.541
<b>Guztira</b>	<b>27.100</b>	<b>100,0</b>	<b>312.544</b>	<b>100,0</b>	<b>7.550.357.411</b>	<b>100,0</b>	<b>24.158</b>

Zenbatekoak eurotan

Batez bestekoari dagokionez, ordaintzailearen tamaina zenbat eta handiago izan, orduan eta zenbateko altuagoa. 500 langiletik gorako ordaintzaileak soldata moduan 28.541 euro ordaintzen dituzte batez beste, eta 1-3 langile bitartean dituztenek, berriz, 17.957 euro ordaintzen dute.

### 3.5.3. Sektoreen arabera

Ordaintzaileei buruzko informazioa eskuratzekoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, jarduera sektorea. Horrela, 2017. urteko 27.100 ordaintzailetik ez dugu ezagutzen 1.452ren jarduera sektorea; dena den, %5,4ko hutsune hori txikiagoa da jasotzaile kopurua aztertzerakoan (%4,0) eta ordaindutako soldatetan (%3,1). Beraz, hutsune horiek ez diote adierazgarritasunik kentzen lortutako emaitzei.

Merkataritza, garraioak eta konponketak sektorean dago Gipuzkoako ordaintzaile kopururik handiena: 8.799 (%34,3). Bigarren lekuan Aisialdia eta beste zerbitzu pertsonalen sektorea dago (%19,2), eta ondoren Enpresei eginiko zerbitzuak (%15,5). Hirurak ere zerbitzuei lotutako sektoreak dira. Industria sektorean, berriz, 3.080 ordaintzaile daude (guztien %12,0), eta eraikuntzan 2.915 (%11,4).

Baina banaketa hori aldatu egiten da soldata jasotzaile kopurua aztertzen badugu; izan ere, gizarte zerbitzuen sektorean dago kopururik handiena: 72.999 soldatapeko, hau da, guztien %24,3. Industrian 66.144 pertsonak (%22,0) jasotzen dute soldata, eta Merkataritza, garraioak eta konponketak sektorean 62.745 pertsonak (%20,9).

**Taula 22. Soldatak sektoreen arabera – 2017**

Sektoreak	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	44	0,2	162	0,1	2.976.499	0,0	18.339
Energia eta ura	99	0,4	2.973	1,0	85.759.630	1,2	28.849
Industria	3.080	12,0	66.144	22,0	1.955.254.914	26,7	29.561
Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa	2.915	11,4	16.391	5,5	383.684.697	5,2	23.408
Merkataritza, garraioak eta konponketak	8.799	34,3	62.745	20,9	1.326.209.987	18,1	21.136
Komunikazioak eta informazioa	40	0,2	190	0,1	5.727.932	0,1	30.176
Banka eta aseguruak	263	1,0	5.224	1,7	220.602.118	3,0	42.229
Enpresei eginiko zerbitzuak	3.985	15,5	37.880	12,6	768.017.818	10,5	20.275
Gizarte zerbitzuak	1.505	5,9	72.999	24,3	2.073.087.677	28,3	28.399
Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	4.918	19,2	35.312	11,8	493.658.802	6,7	13.980
<b>Guztira</b>	<b>25.648</b>	<b>100,0</b>	<b>300.021</b>	<b>100,0</b>	<b>7.314.980.074</b>	<b>100,0</b>	<b>24.382</b>

Zenbatekoak eurotan

Soldata zenbatekorik handiena gizarte zerbitzuetako jarduerak ordaintzen du (2.073 milioi euro; %28,3); Industria sektoreak egiten dituztenek 1.955 milioi euro ordaintzen dute (guztiaren %26,7); eta Merkataritza, garraioak eta konponketak sektoreko ordaintzaileak 1.326 milioi euro (%18,1).

Batez bestekorik handiena banka eta aseguru sektore ordaintzaileak ordaintzen dute: 42.229 euro bertan lan egiten duen 5.224 pertsonako. Ondoren Komunikazioak eta informazioa sektorea dator: 30.176 euro; baina hor, 190 pertsonak bakarrik egiten dute lan. Industria sektoreko ordaintzaileak 29.561 euro ordaintzen dute batez beste.

Gipuzkoan lan-zentroa duten Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sektoreko enpresek dituzten jasotzaile kopurua %4,6 jaitsi da 2008tik. Dena den, esan beharra dago balio absolutuetan oso soldatapeko gutxi direla sektore horretan lan egiten dutenak.

Azken hamar urteetan Industria sektoreko ordaintzaileak 18.098 soldatapeko galdu dituzte; 2008an 84.242 pertsonak egiten zuten lan, eta 2017an 66.144 pertsonak. Taulan ikusten denez, beherakada esanguratsuenak 2009tik aurrera eman dira.

Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioan langile kopururik altuena 2008an lortu zen: 25.096 langile. Hortik aurrera, beherakadak izan ditu, eta 2012an jaitsiera handiena eman zen (-%9,1). 2008tik jaitsiera %34,7koa izan da.

**Taula 23. Jasotzaileen bilakaera sektoreen arabera**

	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza		Energia eta ura		Industria		Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa		Merkataritza, garraioak eta konponketak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
<b>2008</b>	155		2.956		84.242		25.096		63.190	
<b>2009</b>	134	-13,4	2.995	1,3	75.925	-9,9	23.748	-5,4	60.249	-4,7
<b>2010</b>	138	2,5	3.082	2,9	71.865	-5,3	22.275	-6,2	59.349	-1,5
<b>2011</b>	133	-3,1	3.110	0,9	70.243	-2,3	20.381	-8,5	58.348	-1,7
<b>2012</b>	118	-11,5	3.005	-3,4	68.048	-3,1	18.519	-9,1	56.750	-2,7
<b>2013</b>	122	3,4	2.885	-4,0	64.354	-5,4	16.938	-8,5	55.760	-1,7
<b>2014</b>	145	18,9	2.954	2,4	63.885	-0,7	15.931	-5,9	56.938	2,1
<b>2015</b>	155	7,0	2.926	-0,9	63.592	-0,5	15.955	0,1	59.219	4,0
<b>2016</b>	145	-6,4	2.779	-5,0	64.169	0,9	16.384	2,7	60.790	2,7
<b>2017</b>	162	11,7	2.973	7,0	66.144	3,1	16.391	0,0	62.745	3,2
<b>2008/2017</b>	7	4,6	17	0,6	-18.098	-21,5	-8.705	-34,7	-445	-0,7

**Taula 23. jarraipena**

	Komunikazioak eta informazioa		Banka eta aseguruak		Enpresei eginiko zerbitzuak		Gizarte zerbitzuak		Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
<b>2008</b>	204		8.193		38.756		61.789		27.328	
<b>2009</b>	195	-4,5	8.539	4,2	36.553	-5,7	64.566	4,5	29.244	7,0
<b>2010</b>	187	-4,3	7.849	-8,1	36.889	0,9	66.841	3,5	29.809	1,9
<b>2011</b>	185	-1,1	7.539	-3,9	35.445	-3,9	66.845	0,0	30.385	1,9
<b>2012</b>	184	-0,3	7.201	-4,5	33.912	-4,3	66.040	-1,2	29.840	-1,8
<b>2013</b>	195	6,0	7.013	-2,6	33.664	-0,7	65.538	-0,8	29.668	-0,6
<b>2014</b>	176	-9,7	5.644	-19,5	34.442	2,3	66.850	2,0	30.817	3,9
<b>2015</b>	158	-10,4	6.543	15,9	37.216	8,1	69.162	3,5	32.404	5,1
<b>2016</b>	175	11,3	5.112	-21,9	36.581	-1,7	71.092	2,8	34.423	6,2
<b>2017</b>	190	8,2	5.224	2,2	37.880	3,6	72.999	2,7	35.312	2,6
<b>2008/2017</b>	-15	-7,1	-2.969	-36,2	-876	-2,3	11.210	18,1	7.984	29,2

(\*) 2014n hobekuntza bat eman da 190 ereduak ematen duen informazioan. Aldaketa horren eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen A (soldata) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain B (pentsioak) bezala aitortzen dituzte. Irizpide aldaketa horrek 13,5 puntuko distortsio negatiboa sortzen du 2013/2014 konparaketan. Baldintza homogeneousotan, bariazioa %6koa da, eta -%3,9koa 2003/2014 epealdian metatua.



Merkataritza, garraioak eta konponketak sektoreko soldatapeko kopurua %0,7 jaitsi da 2008ko datuekin alderatuta. Dena den, hemen ere krisiaren eragina nabarmentzen da, eta 2009tik aurrera jaitsierak ematen dira. 2014an joera aldatzen da eta jasotzaile kopurua igo egiten da (+%2,1). 2015ean igoera handitu egin da (+%4,0) , 2016an %2,7 igo zen eta 2017an %3,2 igo da.

Gipuzkoako Banka eta aseguru sektorean 5.224 jasotzaile daude 2017. urtean, orain dela 10 urte baino %36,2 gutxiago.

Enpresei eginiko zerbitzuetako soldatapeko kopurua hamar urte hauetan, 2008ko 38.756tik 2016ko 37.880era pasa da. Dena den, urteetan zehar gora beherak eman dira, eta 2008 arte irabazitako 5.000 soldatapeko, krisiarekin galdu egin dira. 2014. urtean hobekuntza motel bat eman da, eta %2,3 igo da, eta 2015ean igoera finkatzen da (+%8,1). 2016an %1,7 jaisten da eta 2017an berriro gora egiten du, %3,6.

Balio absolutuetan jasotzaile gehien irabazi duen sektorea Gizarte zerbitzuetakoa da: 2008an baino 11.210 soldatapeko gehiago (+%18,1).

Eta azkenik, Aisialdia eta beste zerbitzu pertsonaletako sektorea da proportzionalki soldatapeko gehien irabazi duena azken hamar urteetan: +%28,2. Beherakada bakarrak (-%1,8) 2012an eta (-%0,6) 2013an eman dira.

Zenbatekoei dagokionez berriz, Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako sektorean (-%10,8), industrian (-%14,8), banka eta aseguruak sektorean (-%31,4), komunikazioak eta informazioa (-%18,1) eta eraikuntza eta jarduera inmobiliarioan (-%34,4), 2017an ordaindutako soldata osoa 2008koa baino txikiago da.

Igoerarik handiena Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonaletan eman da: +%43,7; eta igoerarik txikiena merkataritza, garraioak eta konponketak, +%1,1.





**Taula 24. Soldata osoen bilakaera sektoreen arabera (eurotan)**

	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza		Energia eta ura		Industria		Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa		Merkataritza, garraioak eta konponketak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
<b>2008</b>	3.335.192		81.257.280		2.295.773.579		584.523.000		1.312.153.453	
<b>2009</b>	2.213.414	-33,6	84.414.418	3,9	2.035.023.602	-11,4	557.065.261	-4,7	1.260.319.231	-4,0
<b>2010</b>	2.599.927	17,5	86.513.763	2,5	1.960.732.007	-3,7	514.271.570	-7,7	1.239.150.395	-1,7
<b>2011</b>	2.387.017	-8,2	89.565.691	3,5	2.017.502.653	2,9	478.018.522	-7,0	1.242.937.350	0,3
<b>2012</b>	2.300.152	-3,6	87.263.412	-2,6	1.958.213.859	-2,9	421.701.459	-11,8	1.190.393.780	-4,2
<b>2013</b>	2.263.535	-1,6	86.721.704	-0,6	1.870.225.059	-4,5	377.308.913	-10,5	1.169.891.221	-1,7
<b>2014</b>	2.510.587	10,9	88.271.911	1,8	1.880.075.194	0,5	363.647.798	-3,6	1.185.029.592	1,3
<b>2015</b>	2.733.262	8,9	86.502.323	-2,0	1.897.120.800	0,9	365.450.448	0,5	1.234.099.595	4,1
<b>2016</b>	2.530.119	-7,4	83.350.568	-3,6	1.935.595.906	2,0	373.554.251	2,2	1.279.825.336	3,7
<b>2017</b>	2.976.499	17,6	85.759.630	2,9	1.955.254.914	1,0	383.684.697	2,7	1.326.209.987	3,6
<b>2008/2017</b>	-358.693	-10,8	4.502.350	5,5	-340.518.665	-14,8	-200.838.303	-34,4	14.056.534	1,1

**Taula 24. Jarraipena**

	Komunikazioak eta informazioa		Banka eta aseguruak		Enpresei eginiko zerbitzuak		Gizarte zerbitzuak		Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
<b>2008</b>	6.996.572		321.621.433		703.601.695		1.734.611.073		343.585.043	
<b>2009</b>	6.593.413	-5,8	326.975.277	1,7	700.876.684	-0,4	1.871.436.009	7,9	365.367.263	6,3
<b>2010</b>	6.538.918	-0,8	311.412.591	-4,8	707.158.965	0,9	1.905.991.007	1,8	381.774.530	4,5
<b>2011</b>	6.707.339	2,6	299.836.745	-3,7	716.776.029	1,4	1.924.699.811	1,0	404.650.258	6,0
<b>2012</b>	6.538.207	-2,5	277.836.290	-7,3	694.807.412	-3,1	1.848.902.760	-3,9	382.599.630	-5,4
<b>2013</b>	6.441.485	-1,5	271.296.789	-2,4	684.354.595	-1,5	1.907.921.231	3,2	383.312.076	0,2
<b>2014</b>	6.029.057	-6,4	246.860.218	-9,0	682.138.324	-0,3	1.934.707.520	1,4	400.996.254	4,6
<b>2015</b>	5.491.207	-8,9	247.134.804	0,1	738.132.470	8,2	1.981.046.464	2,4	419.423.928	4,6
<b>2016</b>	5.822.203	6,0	226.880.624	-8,2	754.107.874	2,2	2.019.252.253	1,9	459.752.546	9,6
<b>2017</b>	5.727.932	-1,6	220.602.118	-2,8	768.017.818	1,8	2.073.087.677	2,7	493.658.802	7,4
<b>2008/2017</b>	-1.268.640	-18,1	-101.019.315	-31,4	64.416.123	9,2	338.476.604	19,5	150.073.759	43,7

(\*) 2014n hobekuntza bat eman da 190 ereduak ematen duen informazioan. Aldaketa horren eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen A (soldata) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain B (pentsioak) bezala aitortzen dituzte. Irizpide aldaketa horrek distorsio negatiboa sortzen du, eta baldintza homogeneotan, 2003/2014 epealdian metatutako bariazioa +%4,6koa da.





## 4. PENTSIOAK

Pentsioen datuak aztertzen hasi baino lehen aipatu beharra dago 2012. urterako zenbait hobekuntza sartu zirela pentsiodunen informazioaren kalitatea hobetzeko. 2012. urte arte informazio hutsuneak zirela-eta balio gabe geratzen ziren erregistro askoren datuak eskuratu ahal izan dira 2012an, 2013an, 2014an, 2015ean, 2016an eta 2017an. Ondorioz, 2012an aztertutako pentsiodunen kolektiboa handitu egin zen. Aldaketa horren eraginez, aztertutako pentsiodun kopurua %3,8 handitu zen 2011rekin alderatuta, eta jasotako pentsioak, berriz, %3,0. Beraz, 2012an, 2013an, 2014an, 2015ean, 2016an eta 2017an datu homogeneoak dira.

2017. urtean pentsio publikoak 180.494 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %2,0 gehiagok. Jasotako pentsioen zenbateko osoa 3.167 milioi euro izan dira, 2016n baino %3,4 handiagoa. Pertsona bakoitzak jasotako batez besteko pentsioa 17.546 eurokoa izan da.

**Taula 25. Pentsioen bilakaera**

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
<b>2008</b>	149.553		2.091.797.832		13.987	
<b>2009</b>	151.700	1,4	2.175.298.682	4,0	14.339	2,5
<b>2010</b>	153.428	1,1	2.269.200.613	4,3	14.790	3,1
<b>2011</b>	156.316	1,9	2.405.967.681	6,0	15.392	4,1
<b>2012(*)</b>	164.946	5,5	2.566.046.320	6,7	15.557	1,1
<b>2013</b>	167.526	1,6	2.685.394.580	4,7	16.030	3,0
<b>2014</b>	169.641	1,3	2.845.631.389	6,0	16.774	4,6
<b>2015</b>	174.854	3,1	2.958.724.879	4,0	16.921	0,9
<b>2016</b>	177.019	1,2	3.061.417.945	3,5	17.294	2,2
<b>2017</b>	180.494	2,0	3.166.919.292	3,4	17.546	1,5
<b>2008/2017</b>		20,7		51,4		25,4

Zenbatekoak eurotan

(\*) Urte honetan informazioaren kalitatean zenbait hobekuntza sartu dira, eta ondorioz pentsiodun kopurua %3,8 igo da, eta zenbatekoa %3,0.



Azken hamar urteetan pentsioak jaso dituzten pertsona kopurua %20,7 igo da. Eta igoera etengabea izan da urtez urte.

Jasotako pentsioei dagokionez, %51,4 igo dira 2008. urtetik: 2.092 milioi eurotik 3.167 milioi eurora. Kasu honetan ere, igoerak urtero eman dira etenik gabe. Pertsonako batez besteko pentsioa %25,4 igo da hamar urteko epealdi honetan: 13.987 eurotik 17.546 eurora. Erreferentzia moduan, aipatu daiteke epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %14,5 igo dela.


Datu horiek, pentsio publikoen arloan azken urteetan eman diren aldaketa garrantzitsuen isla garbia dira. Alde batetik, populazioaren adin-piramidea dela-eta pentsioa jasotzeko eskubidea duten pertsona kopurua etengabe handitzen ari da; eta beste alde batetik, sistemara gehitzen diren pertsona berriek gero eta pentsio altuagoekin egiten dute, izan ere, sistema egin dituzten kotizazioak handiagoak izan dira.

#### **4.1 Pentsioak sexuaren arabera**

Soldaten atalean esan den bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitorpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2017. urteko 180.494 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 6.645ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %3,7ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Pentsiodun kopuruaren banaketa oso orekatua da: %49,4 emakumezkoa da, eta beste %50,6 gizonezkoa. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek pentsio guztien %39,6 jasotzen dute, eta gizonezkoek %60,4.

### Grafikoa 8 – Pentsioen banaketa sexuaren arabera -2017



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen batez besteko pentsioa 14.213 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 21.185 eurokoa.

### Grafikoa 9 – Pentsioen batez bestekoa sexuaren arabera -2017



Azken hamar urteetan emakumezko nahiz gizonezko pentsiodunen bilakaera oso antzekoa izan da. Emakumezkoak 72.255tik 85.837ra pasa dira (+%18,8), eta gizonezkoak 75.289tik 88.012ra (+%16,9).

**Taula 26. Pentsiodunen bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2008</b>	72.255		75.289	
<b>2009</b>	73.495	1,7	76.150	1,1
<b>2010</b>	74.474	1,3	77.080	1,2
<b>2011</b>	75.836	1,8	78.545	1,9
<b>2012</b>	77.509	2,2	80.365	2,3
<b>2013</b>	78.570	1,4	81.665	1,6
<b>2014</b>	79.557	1,3	83.023	1,7
<b>2015</b>	82.269	3,4	85.490	3,0
<b>2016</b>	83.429	1,4	86.777	1,5
<b>2017</b>	85.837	2,9	88.012	1,4
<b>2008/2017</b>		18,8		16,9

Nahiz eta zenbateko osoaren bilakaeran antzeko joera izan, emakumezkoak jasotako pentsioak zerbait gehiago igo dira aztertutako hamar urteetan: +%56,9 (777 milioi eurotik 1.220 milioi eurora). Gizonezkoek jasotako pentsioak 1.293 milioi eurotik 1.865 milioi eurora pasa dira (+%44,2). Horren ondorioz, emakumezkoen pentsioen pisua 2,2 puntu igo da azken hamabi urteetan: 2008ko %37,4tik lehen aipatutako %39,6ra. Beraz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %62,6tik %60,4ra.

**Taula 27. Pentsioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2008</b>	777.362.820		1.293.248.990	
<b>2009</b>	813.869.304	4,7	1.338.851.475	3,5
<b>2010</b>	853.735.358	4,9	1.393.467.600	4,1
<b>2011</b>	908.519.425	6,4	1.474.680.151	5,8
<b>2012</b>	951.743.221	4,8	1.529.034.399	3,7
<b>2013</b>	999.917.213	5,1	1.596.829.770	4,4
<b>2014</b>	1.067.389.051	6,7	1.689.496.928	5,8
<b>2015</b>	1.116.723.894	4,6	1.753.863.201	3,8
<b>2016</b>	1.168.100.503	4,6	1.810.292.017	3,2
<b>2017</b>	1.220.037.874	4,4	1.864.525.686	3,0
<b>2008/2017</b>		56,9		44,2

2008tik 2017ra emakumezkoen batez besteko pentsioa %32,1 igo da: 10.759 eurotik 14.213 eurora. Gizonezkoena, berriz, %23,3 igo da: 17.177 eurotik 21.185 eurora. Lehenago aipatu dugun bezala, epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %14,5 igo da.


**Taula 28. Batez besteko pentsioaren bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2008	10.759		17.177	
2009	11.074	2,9	17.582	2,4
2010	11.464	3,5	18.078	2,8
2011	11.980	4,5	18.775	3,9
2012	12.279	2,5	19.026	1,3
2013	12.726	3,6	19.553	2,8
2014	13.417	5,4	20.350	4,1
2015	13.574	1,2	20.515	0,8
2016	14.001	3,1	20.861	1,7
2017	14.213	1,5	21.185	1,6
2008/2017		32,1		23,3

Azken hamar urte hauetan sexuen arteko batez bestekoaren arrailak behera egin du balio erlatiboetan (grafikoaren errenkada urdina): 2008. urtean %37,4koa zen eta 2017an %32,9koa da. Horrek adierazten duena da emakumezkoen batez besteko pentsioa gizonezkoena baino %32,9 txikiagoa dela.

Balio absolutuetan, berriz, handitu egin da: 2008an 6.419 euroko aldea zegoen, eta 2017an 6.971 eurokoa da.

**Grafikoa 10 – Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera**





## 4.2. Pentsioak adinaren arabera

Pentsiodunen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2017. urteko 180.494 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 4.427ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %2,5eko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

55 urtetik beherako pentsiodunen kopurua oso txikia da: guztien %5,9. Gero, adinean aurrera joan ahala kopuruak handitu egiten dira: 56-65 bitartekoak %17,7 dira (31.084 pertsona); 66-75 bitartean 66.026 pentsiodun daude (%37,5); eta gehiengoa azken tartean dago (75 urtetik gorakoa): 68.732 pertsona, hau da, guztien %39,0.

**Taula 29. Pentsioak adin tarteen arabera - 2017**

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	143	0,1	721.701	0,0	5.047
26 - 35	804	0,5	6.191.368	0,2	7.701
36 - 55	9.278	5,3	113.673.961	3,6	12.252
56 - 65	31.084	17,7	595.161.196	19,1	19.147
66 - 75	66.026	37,5	1.336.805.952	42,9	20.247
> 75	68.732	39,0	1.063.470.191	34,1	15.473
<b>Guztira</b>	<b>176.067</b>	<b>100,00</b>	<b>3.116.024.370</b>	<b>100,0</b>	<b>17.698</b>

Zenbatekoak eurotan

Pentsioen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak (55 urtetik beherakoak) pentsio osoen %3,8 jasotzen dute; 56 eta 65 bitartekoak 595 milioi euro (%19,1); 66-75 bitartekoak 1.337 milioi euro (%42,9), eta zaharrenak (75 urtetik gorakoa) %34,1a.

Bestalde, batez besteko pentsiorik handiena 66 eta 75 urte bitartean dutenak jasotzen dute: 20.247 euro. Antzeko zenbatekoa jasotzen dute 56-65 bitartekoak (19.147 euro). Gero, jaitsi egiten da 75 urte baino gehiago dutenentzat: 15.473 euro.



### 4.3. Pentsioak Gutxienerako Pentsioaren tartean arabera

Jasotako pentsioa tartetean banatzerakoan Gutxienerako Pentsioa (GP) erabili da. Bere balio 2017. urtean 8.471,4 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, lau tarte nabarmentzen dira:

- GParen 0,5 eta 1 arteko pentsioa jasotzaile guztien %11,2k jasotzen dute (20.198 pertsona).
- GParen 1 eta 1,5 arteko pentsioa jasotzaile guztien %25,2k jasotzen dute (45.461 pertsona).
- GParen 1,5 eta 2 arteko pentsioa jasotzaile guztien %14,5ek jasotzen dute (26.110 pertsona).
- GParen 2 eta 2,5 arteko pentsioa jasotzaile guztien %13,2k jasotzen dute (23.810 pertsona).

**Taula 30. Pentsioak GParen tartean arabera – 2017**

Errenta tarte (GP)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	6.354	3,5	14.502.418	0,5	2.282
0,5 - 1	20.198	11,2	125.708.093	4,0	6.224
1 - 1,5	45.461	25,2	453.517.597	14,3	9.976
1,5 - 2	26.110	14,5	386.696.412	12,2	14.810
2 - 2,5	23.810	13,2	451.286.704	14,3	18.954
2,5 - 3	17.248	9,6	399.963.590	12,6	23.189
3 - 3,5	13.465	7,5	369.677.751	11,7	27.455
3,5 - 4	11.054	6,1	350.194.319	11,1	31.680
4 - 4,5	15.344	8,5	547.653.417	17,3	35.692
4,5 - 5	595	0,3	23.799.745	0,8	40.000
> 5	855	0,5	43.919.246	1,4	51.368
<b>Guztira</b>	<b>180.494</b>	<b>100,00</b>	<b>3.166.919.292</b>	<b>100,00</b>	<b>17.546</b>

Zenbatekoak eurotan

(\*) 2017an Gutxienerako Pentsioaren balio 8.471,4 eurokoa da

Azkenean, jasotzaile guztien ia-ia erdiak (%39,9) GParen 1,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 12.707,1 euro baino gutxiago. Eta ia-ia hiru laurdenak (%67,6) GParen 2,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 21.178,5 euro baino gutxiago.

Pentsioen zenbatekoari dagokionez, gehiena 4-4,5 tartean metatzen da (548 milioi euro; %17,3); gero 1-1,5 tarte dator (454 milioi euro; %14,3); eta 2-2,5 tarteko pentsiodunek 451 milioi euro kobratzen dituzte, guztiaren %14,3.

## 5 LANGABEZIA PRESTAZIOAK

2017. urtean langabezia prestazioak 44.705 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %6,2 gutxiagok. Zenbateko osoa 142 milioi eurokoa da, 2016an baino %9,2 txikiagoa. Pertsonako batez bestekoa 3.184 euro izan dira.

**Taula 31. Langabezia prestazioen bilakaera**

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
<b>2008</b>	44.153		156.987.700		3.556	
<b>2009</b>	70.433	59,5	285.313.630	81,7	4.051	13,9
<b>2010</b>	70.507	0,1	291.630.219	2,2	4.136	2,1
<b>2011</b>	66.108	-6,2	263.356.205	-9,7	3.984	-3,7
<b>2012</b>	71.399	8,0	297.871.931	13,1	4.172	4,7
<b>2013</b>	69.913	-2,1	287.350.180	-3,5	4.110	-1,5
<b>2014</b>	61.091	-12,6	234.185.693	-18,5	3.833	-6,7
<b>2015</b>	52.855	-13,5	184.648.737	-21,2	3.493	-8,9
<b>2016</b>	47.665	-9,8	156.835.634	-15,1	3.290	-5,8
<b>2017</b>	44.705	-6,2	142.344.094	-9,2	3.184	-3,2
<b>2008/2017</b>		1,3		-9,3		-10,4

Zenbatekoak eurotan

Azken hamar urteetan langabezia prestazioak jaso dituzten pertsona kopurua igo egin da 552n: 44.153tik 44.705era (+%1,3). Igoerarik handiena 2009 urtean eman zen: +%59,5. Hortik aurrera, eta 2011ko jaitsiera kenduta, langabezia prestazioa jaso duten pertsona kopurua 70.000 inguruan mantendu da 2013 arte. 2014an jaitsiera garrantzitsu bat eman da, %12,6 eta 8.822 pertsona jasotzaile. 2015ean jaitsiera finkatu da, -%13,5 eta 8.236 pertsona jasotzaile gutxiago. 2016. eta 2017. urteetan jaisten jarraitzen du, -%9,8 eta -%6,2.

Jasotako prestazioei dagokionez, %9,3 jaitsi dira 2008. urtetik. Kasu honetan ere, igoerarik handiena 2009an eman zen (+%81,7).

Pertsonako batez besteko langabezia prestazioa %10,4 jaitsi da hamar urteko epealdi honetan: 3.556 eurotik 3.184 eurora. Zenbatekorik handiena 2012koa izan da (4.172 euro).




## 5.1. Langabezia prestazioak sexuaren arabera

Soldata eta pentsioekin gertatu zaigun bezala, hemen ere jasotzaileen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, pertsonen sexua lortzerakoan. Horrela, 2017. urtean langabezia prestazioa jasotzen duten 44.705 pertsonatik ez dugu ezagutzen 1.842ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune txiki horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Langabezia prestazioa jasotzen duten guztietatik, %53,2 emakumezkoa da, eta beste %46,8 gizonezkoa. Zenbatekoari begiratzten badiogu, berriz, emakumezkoek guztiaren %50,8 jasotzen dute, eta gizonezkoek %49,2.

**Grafikoa 11 – Langabezia prestazioen banaketa sexuaren arabera -2017**



Azken hamar urteetan langabezia prestazio jaso duten emakumezko nahiz gizonezko kopuruaren bilakaera antzekoa izan da:

- Emakumezkoen kopurua 22.077tik 22.792ra igo da (+%3,3).
- Gizonezkoen kopurua 20.719tik 20.067ra jaitsi da (-%3,1)



**Taula 32. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2008</b>	22.077		20.719	
<b>2009</b>	28.487	29,0	39.797	92,1
<b>2010</b>	29.608	3,9	38.923	-2,2
<b>2011</b>	29.877	0,9	34.814	-10,6
<b>2012</b>	31.416	5,2	36.736	5,5
<b>2013</b>	30.715	-2,2	35.304	-3,9
<b>2014</b>	28.340	-7,7	29.986	-15,1
<b>2015</b>	25.491	-10,1	24.576	-18,0
<b>2016</b>	23.818	-6,6	22.048	-10,3
<b>2017</b>	22.796	-4,3	20.067	-9,0
<b>2008/2017</b>		3,3		-3,1

Zenbatekoan ere antzeko bilakaera ikusten da: emakumezkoak jaso dutena %6,7 jaitsi da (74 milioi eurotik 69 milioi eurora), eta gizonezkoena %14,1 jaitsi da (78 milioi eurotik 67 milioi eurora).

**Taula 33. Langabezia prestazioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2008</b>	74.396.505		78.336.172	
<b>2009</b>	105.920.643	42,4	171.846.876	119,4
<b>2010</b>	112.741.802	6,4	171.768.314	0,0
<b>2011</b>	110.552.896	-1,9	147.975.071	-13,9
<b>2012</b>	121.605.054	10,0	164.832.673	11,4
<b>2013</b>	117.290.070	-3,5	156.125.492	-5,3
<b>2014</b>	100.049.303	-14,7	124.872.316	-20,0
<b>2015</b>	83.890.340	-16,2	91.956.972	-26,4
<b>2016</b>	74.316.603	-11,4	77.003.589	-16,3
<b>2017</b>	69.433.627	-6,6	67.255.408	-12,7
<b>2008/2017</b>		-6,7		-14,1



## 5.2. Langabezia prestazioak nazionalitatearen arabera

Lehenago aipatu dugun bezala, espainiar nazionalitatea dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egingo dugu. Sailkapen hori egiten da, NANaren lehen letraren arabera: X edo Y atzerritarrentzat, eta beste letra guztiak espainiarrentzat.

Gipuzkoan bizi diren langabezia prestazio jasotzaileen nazionalitateari erreparatzen badiogu, gehiengo nagusia bertakoa dela ikusten da: 2017an %90,3 dira bertakoak eta beste %9,7 atzerritarrak.

Dena den azken hamar urteetan atzerritarren partaidetza handitu egin da: 2008an 4.058 atzerritarrek jaso zuten langabezia prestazioa, eta 2017an 4.342 dira; hau da, %7,0 gehiago. Azken zazpi urteak jaitsiera erakusten dute.

**Taula 34. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera nazionalitatearen arabera**

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
<b>2008</b>	40.095		4.058	
<b>2009</b>	64.345	60,5	6.088	50,0
<b>2010</b>	63.682	-1,0	6.825	12,1
<b>2011</b>	59.392	-6,7	6.716	-1,6
<b>2012</b>	64.688	8,9	6.711	-0,1
<b>2013</b>	63.947	-1,1	5.966	-11,1
<b>2014</b>	55.843	-12,7	5.248	-12,0
<b>2015</b>	48.103	-13,9	4.752	-9,5
<b>2016</b>	43.293	-10,0	4.372	-8,0
<b>2017</b>	40.363	-6,8	4.342	-0,7
<b>2008/2017</b>		0,7		7,0

Atzerritar kopuruaren igoera horrek ez dute isla izan langabezia prestazioen zenbatekoan; izan ere, beraiek jasotako zenbatekoa berdina da 2008an eta 2017an (11,7 milioi euro). Bertakoak jasotakoa 145 milioi eurotik 131 milioi eurora pasa da (-%10,1).



**Taula 35. Langabezia prestazioen bilakaera nazionalitatearen arabera (eurotan)**

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
<b>2008</b>	145.296.998		11.690.702	
<b>2009</b>	261.076.778	79,7	24.236.851	107,3
<b>2010</b>	265.347.326	1,6	26.282.893	8,4
<b>2011</b>	239.712.126	-9,7	23.644.079	-10,0
<b>2012</b>	273.039.124	13,9	24.832.807	5,0
<b>2013</b>	265.311.049	-2,8	22.039.131	-11,2
<b>2014</b>	216.968.717	-18,2	17.216.976	-21,9
<b>2015</b>	170.684.651	-21,3	13.964.085	-18,9
<b>2016</b>	144.453.135	-15,4	12.382.499	-11,3
<b>2017</b>	130.688.487	-9,5	11.655.608	-5,9
<b>2008/2017</b>		-10,1		-0,3

### 5.3. Langabezia prestazioak adinaren arabera

Jasotzaileen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2017. urtean langabezia prestazioa 44.705 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 1.589ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

25 urtetik beherakoak jasotzaile guztien %4,6 dira; eta hortik aurrera banaketa nahiko orekatua da: 26-35 tartean %23,0a dago; 36 eta 45 urte tartean %27,1a; 46-55 tartean %24,9a; eta 55 urtetik gorakoek tartean %21,4a.

**Taula 36. Langabezia prestazioak adin tarteen arabera - 2017**

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	1.967	4,6	4.009.810	2,9	2.039
26-35	9.911	23,0	27.122.419	19,7	2.737
36-45	11.679	27,1	36.391.685	26,4	3.116
46-55	10.313	23,9	31.275.401	22,7	3.033
> 55	9.246	21,4	38.905.296	28,3	4.208
<b>Guztira</b>	<b>43.116</b>	<b>100,00</b>	<b>137.704.611</b>	<b>100,0</b>	<b>3.194</b>

Zenbatekoak eurotan

Langabezia prestazioaren zenbatekoari begiratuta, oreka oraindik ere handiagoa da. Lehen tartea izan ezik (%2,9), beste guztiak antzeko balioak dituzte:

- 26-35 tarreak zenbateko osoaren %19,7 metatzen du.
- 36-45 tarreak zenbateko osoaren %26,4 metatzen du.
- 46-55 tarreak zenbateko osoaren %22,7 metatzen du.
- 55 urtetik gorakoek zenbateko osoaren %28,3 metatzen dute.

#### 5.4. Langabezia prestazioa LGSren tarteen arabera

Jasotako soldata tarreetan banatzerakoan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) erabili da. Bere balio 2017. urtean 9.906,4 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, gehiengo nagusia (%77,7) lehen tartean dago; horrek esan nahi du 4.953,2 euro baino gutxiago jaso dituztela. LGSren 0,5 eta 1 bitartean 8.229 pertsonak jaso dute (%18,4); eta hortik aurrera, hau da, 9.906,4 euro edo gehiago jasotzaile guztien %3,9k jasotzen du.

**Taula 37. Langabezia prestazioak LGSren tarteen arabera – 2017**

Errenta tartea (LGS)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	34.740	77,7	69.707.853	49,0	2.007
0,5 - 1	8.229	18,4	51.325.435	36,1	6.237
1 - 1,5	1.559	3,5	18.498.455	13,0	11.866
1,5 - 2	174	0,4	2.745.700	1,9	15.780
> 2	3	0,0	66.651	0,0	22.217
<b>Guztira</b>	<b>44.705</b>	<b>100,00</b>	<b>142.344.094</b>	<b>100,0</b>	<b>3.184</b>

Zenbatekoak eurotan

(\*) 2017an Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 9.906,4 eurokoa da

Langabezia prestazioaren zenbatekoaren %49,0a lehen tartekoak jaso dute, eta batez bestekoa 2.007 eurokoa da. LGSren 0,5 eta 1 bitartean jasotzen dutenak, guztiaren %36,1 metatzen dute (51 milioi euro; batez beste 6.237 euro). Hurrengo tarteko jasotzaileak (LGS 1-1,5) aldiz zenbateko osoaren %13,0 jasotzen dute. Eta azken bi tarreetan portzentajea nabarmen jaisten da: LGS 1,5 eta 2 aldiz jasotzen dutenena %1,9 da; eta 2 aldiz baino gehiago jasotzen dutenena ia-ia zero.

## 6 GIZARTE AURREIKUSPENEN ERRESKATEAK

Atal honetan Gipuzkoako biztanleak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate (BGAE), Pentsio Plan (PP), Mutualitate eta antzeko sistemetatik egindako erreskateen zenbatekoak aztertuko dira.

Sistema horietara egindako kontribuzioak eta ekarpenak ekitaldi horretako PFEZren oinarri ezargarria murrizten dute. Hurrengo urteetan, zenbatekoak erreskatatzen direnean, PFEZn integratzen dira, lan etekin bezala. Erreskateak bi motatakoak izan daitezke:

- Errenta moduan egindakoak: urtero zenbateko bat jasotzen da, eta orduan erreskatatutako zenbatekoa osoa PFEZren oinarri ezargarri orokorrean integratzen da, lan etekin bezala.
- Kapital moduan egindakoak: zenbateko guztia batera erreskatatzen da, eta orduan erreskatatutako zenbatekoaren %60a PFEZren oinarri ezargarrian integratzen da, lan etekin bezala.

### 6.1. Errenta moduan egindako erreskateak

2017. urtean errenta moduan 10.541 pertsonak egin dituzte erreskateak, iaz baino %33,6 gutxiagok. Erreskatatutako zenbatekoa osoa (57 milioi euro) %44,9 jaitsi da 2016rekin alderatuta. Pertsonako batez bestekoa 5.393 euro izan dira.

**Taula 38. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera**

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
<b>2008</b>	22.343		136.237.625		6.098	
<b>2009</b>	23.460	5,0	144.160.419	5,8	6.145	0,8
<b>2010</b>	24.516	4,5	154.237.984	7,0	6.291	2,4
<b>2011</b>	24.722	0,8	162.990.707	5,7	6.593	4,8
<b>2012</b>	26.146	5,8	177.742.598	9,1	6.798	3,1
<b>2013</b>	27.292	4,4	192.988.985	8,6	7.071	4,0
<b>2014 (*)</b>	21.976	-19,5	127.571.292	-33,9	5.805	-17,9
<b>2015 (*)</b>	16.434	-25,2	95.025.688	-25,5	5.782	-0,4
<b>2016 (*)</b>	15.875	-3,4	103.236.748	8,6	6.503	12,5
<b>2017 (**)</b>	10.541	-33,6	56.848.303	-44,9	5.393	-17,1
<b>2008/2017</b>		-52,8		-58,3		-11,6

Zenbatekoak eurotan

(\*) 2014n, 2015ean eta 2016an hobekuntzak eman dira 190 ereduak ematen duen informazioan. Lehenago B gakoak (pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak) bi azpigako besterik ez zituen. 2014tik aurrera 10 azpigako baino gehiagotan banatzen da, eta horrela etekinak zehaztasun askoz gehiagorekin sailkatzen dira. Aldaketa horien



eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen B02 (gizarte aurreikuspeneko erreskateak) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain beste azpigako batzuekin aitortzen dituzte, eta pentsio bezala sailkatzen dira.

(\*\*) 2017n, "BGAEEtatik, pentsio planetatik eta zergaren foru arauko 70.1 artikuluan aurreikusitako gainerako aurreikuspen sistemetatik jasotako prestazioak" kontzeptuan aitortutako erreskateak soilik aztertzen dira. Aurreko urteetan (2014, 2015 eta 2016) kontzeptu hauen gain, 190 ereduaren, B gakoaren, 03 azpigakoan (B gakoari dagozkion gainerako azpigakoetan zerrendatutakoez besteko prestazioak) sarturiko etekinak kontuan izaten ziren.

Taularen oineko oharrean azaltzen den bezala, 190 ereduari sartu diren aldaketek eragin handia izan dute datuetan. 2017. urtean metodologian aldaketa berri bat sartu dugu. 2014. urtetik aurrera, 190 eredu berria aplikatzen dugula kontuan izanik, deritzogu entitate aitortzaileak etekinak kontzeptu espezifikoan aitortzen dituztela eta ez kontzeptu orokorrean. Horregatik, 2017. urtean B gakoa, 20, 21, 22, 23, 24, 25 eta 26 azpigako kontzeptuetan aitortutako erreskateak soilik aztertzen ditugu.

**Taula 38.BIS Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera (BALIO HOMOGENEOAK).**


	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
<b>2014</b>	9.492		49.343.081		5.198	
<b>2015</b>	9.777	3,0	51.193.219	3,7	5.236	0,7
<b>2016</b>	10.695	9,4	58.476.968	14,2	5.468	4,4
<b>2017</b>	10.541	-1,4	56.848.303	-2,8	5.393	-1,4
<b>2014/2017</b>		11,1		15,2		3,7

#### 6.1.1. Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Beste atal batzuetan aipatu dugun bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzekoan, zenbait aitortzen datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2017. urtean erreskateak errenta moduan egiten dituzten 15.541 pertsonetatik, ez dugu ezagutzen 74ren sexua. Horregatik, sexuen batuketan ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %39,1 emakumezkoak dira, eta beste %60,9 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begirazten badiogu, emakumezkoek guztiaren %33,7 erreskatatzen dute, eta gizonezkoek %66,3.

### Grafikoa 12 – Errenta moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2017



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2017. urtean 4.650 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 5.885 eurokoa.

Gizarte aurreikuspeneko sistemataraz egiten diren kontribuzio eta ekarpen asko lan kontratuari lotuta daude. Horregatik, emakumezkoen presentzia lan merkatuan handitu den neurrian, erreskateetan duten parte-hartzea ere handitu eginda. Horrela, azken hamar urteetan errenta moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 8.061etik 4.094ra (-%49,2) pasa da. Gizonezkoak, berriz, 13.608tik 6.373ra pasa dira (-%53,2). Bi kasuetan urtero eman dira igoyerak, etekin gabe, 2014an, 2015ean, 2016an eta 2017an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 ereduaren).



**Taula 39. Errenta moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2008</b>	8.061		13.608	
<b>2009</b>	8.944	11,0	13.832	1,6
<b>2010</b>	9.376	4,8	14.440	4,4
<b>2011</b>	9.562	2,0	14.480	0,3
<b>2012</b>	10.113	5,8	14.941	3,2
<b>2013</b>	10.648	5,3	15.463	3,5
<b>2014</b>	9.244	-13,2	12.019	-22,3
<b>2015</b>	6.954	-24,8	8.997	-25,1
<b>2016</b>	6.706	-3,6	8.725	-3,0
<b>2017</b>	4.094	-39,0	6.373	-27,0
<b>2008/2017</b>		-49,2		-53,2

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak. Horrela, 2008an emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 39 milioi euro izan ziren bitartean, 2017an 19 milioi euro izan dira; hau da, %51,2 gutxiago. Gainera, taulan ikusten denez, urte guztietan bariazio positiboak izan dituzte, 2014an, 2015ean, 2016an eta 2017an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 ereduan).

**Taula 40. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2008</b>	39.053.609		94.693.137	
<b>2009</b>	42.720.587	9,4	98.725.921	4,3
<b>2010</b>	45.701.618	7,0	105.567.094	6,9
<b>2011</b>	48.801.743	6,8	111.372.260	5,5
<b>2012</b>	54.138.617	10,9	116.647.917	4,7
<b>2013</b>	59.949.583	10,7	125.422.345	7,5
<b>2014</b>	42.984.031	-28,3	81.146.999	-35,3
<b>2015</b>	35.646.621	-17,1	57.882.087	-28,7
<b>2016</b>	34.141.762	-4,2	67.570.153	16,7
<b>2017</b>	19.038.676	-44,2	37.503.194	-44,5
<b>2008/2017</b>		-51,2		-60,4

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %60,4 jaitsi dira hamar urte hauetan: 95 milioi eurotik 38 milioi eurora. Hauek ere urtero bariazio positiboak izan dituzte, 2014an, 2015ean, 2016an eta 2017an izan ezik (lehen aipatutako aldaketak eman direlako 190 ereduan).



### 6.1.2. Errenta moduan egindako erreskateak adinaren arabera

Sexuarekin gertatzen zitzagun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2017. urteko 10.541 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 49ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

2017. urtean 25 urtetik beherako pertsona oso gutxik (123; guztiaren %1,2) egin dituzte erreskateak. Adinean aurrera joan ahala, kopurua handitu egiten da: 26-35 urte bitartekoak %1,3 dira; 36-55 bitartekoak %15,1; 56-65 bitartekoak %27,8; 66-75 bitartekoak %34,3; eta, azkenik, errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %20,3k 75 urte baino gehiago dute.

**Taula 41. Errenta moduan egindako erreskateak adin tarteen arabera - 2017**

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	123	1,2	230.153	0,4	1.871
26-35	141	1,3	279.779	0,5	1.984
36-55	1.581	15,1	4.128.581	7,3	2.611
56-65	2.915	27,8	13.863.674	24,5	4.756
66-75	3.597	34,3	21.009.849	37,1	5.841
>75	2.135	20,3	17.148.935	30,3	8.032
<b>Guztira</b>	<b>10.492</b>	<b>100,00</b>	<b>56.660.972</b>	<b>100,0</b>	<b>5.400</b>

Zenbatekoak eurotan

Erreskatearen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak, 55 urte baino gutxiago dutenek, zenbateko osoaren %8,2a erreskatatzen dute; 56-65 bitartekoak %24,5; 66-75 bitartekoak %37,1; eta, zaharrenek, 75 urte baino gehiagokoak, %30,3.

Datuak horrela izanda, erreskatatutako batez bestekoaren zenbatekoa nabarmen handitzen da adinean aurrera goazen neurrian. Horrela, azken hiru tartek 4.756 eurotik gorako batez besteko zenbatekoak dituzte.

### 6.1.3. Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera

2017an erreskatatutako zenbatekoari begiratuta, %56,4k 1.000 euro eta 5.000 euro bitarteko errenta jaso du. Ondoren datoz 5.000 eta 10.000 euro bitartean jaso dutenak (%14,5), eta gero 0 eta 500 euro bitartekoak (%8,8). 10.000 euro eta 20.000 euro bitartekoak kopuru osoaren %8,0 dira

(843 pertsona); beste 785 pertsonak (%7,4) 500 euro eta 1.000 euro bitartean erreskatatu dute. Tarte handienetan, berriz, 432 pertsonak (guztien %4,1) 20.000–50.000 euro bitarteko zenbatekoa erreskatatu du; eta 50.000 euro baino gehiago 85 pertsonak erreskatatu dute.

**Taula 42. Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera – 2017**

Tartea (eurotan)	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<b>0 - 500</b>	928	8,8	184.770	0,3	199
<b>500 - 1.000</b>	785	7,4	616.343	1,1	785
<b>1.000 - 5.000</b>	5.940	56,4	14.267.760	25,1	2.402
<b>5.000 - 10.000</b>	1.528	14,5	10.724.568	18,9	7.019
<b>10.000 - 20.000</b>	843	8,0	11.633.818	20,5	13.800
<b>20.000 - 50.000</b>	432	4,1	12.914.615	22,7	29.895
<b>&gt;50.000</b>	85	0,8	6.506.429	11,4	76.546
<b>Guztira</b>	<b>10.541</b>	<b>100,00</b>	<b>56.848.303</b>	<b>100,00</b>	<b>5.393</b>

Zenbatekoak eurotan

Erreskatatutako zenbatekoari dagokionez, tarte altuen pisua handiago da:

- 1.000–5.000 tartean daudenak zenbateko osoaren %25,1 erreskatatzen dute (14 milioi euro).
- 20.000-50.000 tartekoek 13 milioi euro erreskatatu dituzte (%22,7).
- 10.000-20.000 tartekoek erreskatatzen dutenak: 12 milioi euro (%20,5).
- 5.000-10.000 tartean daudenak %18,9 (11 milioi euro).
- 50.000 euro baino gehiago erreskatatzen dutenak (7 milioi euro), zenbateko osoaren %11,4 dira.
- Beheko bi tartekak oso pisu txikia dute: 500 euro baino gutxiagokoak %0,3, eta 500-1.000 euro bitartekoak %1,1.

#### **6.1.4. Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak**

2017an errenta moduan erreskateak egin dituzten 10.541 pertsonetatik 8.677k (%82,3) pentsio publikoa ere kobratzen dute; beste 1.864


pertsonak (%17,7) ez dute pentsio publikoa gizarte aurreikuspeneko erreskatearekin bateratzen.

Nolabait ulertu daiteke, pentsio publikoa eta errenta moduan egindako erreskatea bat egiten dutenek, urtero horrela egingo dutela. Hau da, gizarte aurreikuspeneko erreskatea bere bizitzan zehar izango duen pentsio publikoaren osagarri bezala erabiltzen dutela.

Erreskatatutako 57 milioi eurotik, 49 milioi (%86,5) pentsio publikoarekin bateragarri egin dutenak metatzen dute. Eta beste 8 milioi euro (%13,5) erreskatatu dituzte pentsio publikorik jasotzen ez dutenek.

Batez beste erreskatea 5.668 eurokoa da pentsio publikoa ere jasotzen dutenentzat, eta 4.115 eurokoa besteentzat.


**Grafikoa 13 – Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak 2017**



Bestalde, pentsio publikoa kobratzen duten horiek 22.963 euroko batez besteko pentsioa jaso dute. Beraz, 2017an guztira 28.631 euro jaso dute, %80,2a pentsio publikoetatik eta beste %19,8 gizarte aurreikuspeneko entitateetatik errenta moduan egindako erreskateetatik.

Erreskatatutako batez besteko zenbatekoa (5.668 euro) pentsio publikoaren batez bestekoaren (22.963 euro) %24,6 da.

## Grafikoa 14 – Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak - 2017



### 6.2. Kapital moduan egindako erreskateak

2017. urtean kapital moduan 9.316 pertsonak egin dituzte erreskateak, iaz baino %25,1 gutxiagok. Erreskatatutako zenbatekoa baita ere jaitsi egin da (-%27,3), eta 160 milioi eurotara iritsi da. Pertsonako batez bestekoa 17.131 euro izan dira.

Bilakaera negatibo eman zen 2012, 2014, 2016 eta 2017 urteetan eta azpimarratu behar da 2015eko igoera ez dela finkatu. 2012ko bilakaera negatiboak badu bere arrazoia: 2012rako aldaketa sakonak sartu ziren Gizarte Aurreikuspeneko sistemataraz egindako ekarpen eta kontribuzioengatik PFEZn egiten ziren murrizpenean. Esaterako, gehieneko mugak jaitsi egin ziren, ezabatu egin zen 67 urtetik gorako zergadunen murrizpena... Aldaketa horiek guztiak mugimendu handiak ekarri zituzten 2011ko erreskateetan, eta ondorioz zenbatekoak asko handitu ziren urte horretan (+%36,4).

Azken hamar urteetan kapital moduan erreskateak egin dituzten pertsona kopurua %29,4 jaitsi da: 13.203tik 9.316ra. 2012-2014 epealdia eta 2016-2017 epealdiak kenduta (-%8,2, -%5,4, -%2,9, -%17,1 eta -%25,1), beste guztietan igoerak eman dira.

**Taula 43. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera**

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
<b>2008</b>	13.203		219.581.173		16.631	
<b>2009</b>	14.477	9,6	233.096.657	6,2	16.101	-3,2
<b>2010</b>	14.746	1,9	263.991.201	13,3	17.903	11,2
<b>2011</b>	16.253	10,2	360.197.636	36,4	22.162	23,8
<b>2012</b>	14.920	-8,2	223.017.309	-38,1	14.948	-32,6
<b>2013</b>	14.120	-5,4	246.638.361	10,6	17.467	16,9
<b>2014</b>	13.714	-2,9	206.549.120	-16,3	15.061	-13,8
<b>2015</b>	15.000	9,4	225.034.282	8,9	15.002	-0,4
<b>2016</b>	12.431	-17,1	212.180.722	-5,7	17.069	13,8
<b>2017</b>	9.316	-25,1	159.592.706	-24,8	17.131	0,4
<b>2008/2017</b>		-29,4		-27,3		3,0

Zenbatekoak eurotan

Erreskatatutako zenbatekoei dagokionez, %27,3 jaitsi dira 2008. urtetik: 220 milioi eurotik 160 milioi eurora. Mailarik handien 2011. urtean lortu zen: 360 milioi euro.

Pertsonako batez besteko erreskatea %3,0 igo da azken hamar urteetan: 16.631 eurotik 17.131 eurora.

**Taula 43.BIS Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera (BALIO HOMOGENEOAK).**


	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
<b>2014</b>	10.220		127.571.292		12.483	
<b>2015</b>	12.182	19,2	183.789.608	44,1	15.087	20,9
<b>2016</b>	10.531	-13,6	180.753.732	-1,7	17.164	13,8
<b>2017</b>	9.316	-11,5	159.592.706	-11,7	17.131	-0,2
<b>2014/2017</b>		-8,8		25,1		37,2

### 6.2.1. Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Erreskateak egiten dituzten pertsonen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, sexua lortzerakoan. Horrela, 2017. urteko 9.316 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 95aren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %45,0 emakumezkoak dira, eta beste %55,0 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begirazten badiogu, emakumezkoek guztiaren %37,2 erreskatatzen dute (59 milioi euro), eta gizonezkoek %62,8 (100 milioi euro).

### Grafikoa 15 – Kapital moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2017



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2017. urtean 14.178 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 19.655 eurokoa.

Azken hamar urteetan kapital moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 4.387tik 4.153ra jaitsi da (-%5,3). Gizonezkoak, berriz, 8.569tik 5.068ra pasa dira (-%40,9).

**Taula 44. Kapital moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2008</b>	4.387		8.569	
<b>2009</b>	4.779	8,9	9.382	9,5
<b>2010</b>	4.873	2,0	9.541	1,7
<b>2011</b>	5.856	20,2	10.079	5,6
<b>2012</b>	5.533	-5,5	9.040	-10,3
<b>2013</b>	5.197	-6,1	8.526	-5,7
<b>2014</b>	5.427	4,4	8.003	-6,1
<b>2015</b>	6.334	16,7	8.408	5,1
<b>2016</b>	5.186	-18,1	7.058	-16,1
<b>2017</b>	4.153	-19,9	5.068	-28,2
<b>2008/2017</b>		-5,3		-40,9



Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak, baina areagotuta. Horrela, 2008an emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 60 milioi euro izan ziren bitartean, 2017an 59 milioi euro izan dira; hau da, %1,3 gutxiago. Eta hori, 2011rekin alderatuta jaitsi egin dela; izan ere, urte horretan emakumezkoak kapital moduan erreskatatutako zenbatekoa 114 milioi eurotara iritsi zen.

**Taula 45. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)**

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
<b>2008</b>	59.631.290		157.736.632	
<b>2009</b>	68.624.348	15,1	162.269.923	2,9
<b>2010</b>	76.459.403	11,4	185.100.687	14,1
<b>2011</b>	113.650.983	48,6	243.672.147	31,6
<b>2012</b>	73.435.474	-35,4	146.978.897	-39,7
<b>2013</b>	78.989.960	7,6	163.928.931	11,5
<b>2014</b>	74.936.206	-5,1	129.739.272	-20,9
<b>2015</b>	83.497.209	11,4	139.719.531	7,7
<b>2016</b>	73.264.430	-12,3	137.768.065	-1,4
<b>2017</b>	58.879.631	-19,6	99.609.315	-27,7
<b>2008/2017</b>		-1,3		-36,9

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %36,9 jaitsi dira hamar urte hauetan: 158 milioi eurotik 100 milioi eurora. Hauek ere 2011n lortu zuten zenbatekorik altuena: 244 milioi euro.

### 6.2.2. Kapital moduan egindako erreskateak adinaren arabera

Sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2017. urteko 9.316 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 54ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

2017. urtean 25 urtetik beherako pertsona oso gutxi (86; guztiaren %0,9) egin dituzte erreskateak kapital moduan, eta 26-35 bitartekoak 376 dira (%4,1). Erdiko bi tarteak dira pertsona gehien metatzen dituztenak: 36-55 bitartekoak %29,0 eta 56-65 bitartekoak %57,3. Ondoren, adinean aurrera joan ahala gutxitu egiten dira: 66-75 bitartekoak %16,8, eta, azkenik, kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %3,6k 75 urte baino gehiago dute.



**Taula 46. Kapital moduan egindako erreskateak adin tarteen arabera  
- 2017**

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	86	0,9	867.340	0,5	10.085
26-35	376	4,1	2.068.812	1,3	5.502
36-55	2.685	29,0	19.393.747	12,2	7.223
56-65	4.225	45,6	91.200.603	57,3	21.586
66-75	1.553	16,8	38.498.404	24,2	24.790
>75	337	3,6	7.221.303	4,5	21.428
<b>Guztira</b>	<b>9.262</b>	<b>100,00</b>	<b>159.250.208</b>	<b>100,0</b>	<b>17.194</b>

Zenbatekoak eurotan

Erreskatearen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak, 35 urte baino gutxiago dutenek, zenbateko osoaren %1,8a erreskatatzen dute; 36-55 bitartekoak %12,2; 56-65 bitartekoak guztiaren erdia baino gehiago (%57,3); 66-75 bitartekoak %24,2; eta, zaharrenek, 75 urte baino gehiagokoak, %4,5.

Datuak horrela izanda, kapital moduan erreskatatutako batez bestekoaren zenbatekorik altuena 66-75 urtekoek dute: 24.790 euro.

### 6.2.3. Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera

2017an kapital moduan erreskatatutako zenbatekoari begiratuta, laurden batek baino gehiagok (%23,8) 1.000 eta 5.000 euro bitartean jaso ditu. Ondoren datoz 20.000 eta 50.000 euro bitartean jaso dutenak (%19,5), gero 5.000 – 10.000 euro bitartekoak (%17,4), eta 10.000–20.000 euro bitarteko zenbatekoa erreskatatu dutenak %16,7 dira.

**Taula 47. Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera –  
2017**

Tartea (eurotan)	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 500	903	9,7	155.085	0,1	172
500 - 1.000	566	6,1	413.344	0,3	730
1.000 - 5.000	2.218	23,8	6.306.435	4,0	2.843
5.000 - 10.000	1.623	17,4	11.925.041	7,5	7.348
10.000 - 20.000	1.555	16,7	22.647.478	14,2	14.564
20.000 - 50.000	1.820	19,5	58.268.152	36,5	32.015
>50.000	631	6,8	59.877.170	37,5	94.893
<b>Guztira</b>	<b>9.316</b>	<b>100,00</b>	<b>159.592.706</b>	<b>100,00</b>	<b>17.131</b>

Zenbatekoak eurotan



Zenbateko gutxien erreskatatu dutenak (500 euro baino gutxiago), kopuru osoaren %9,7 dira (903 pertsona); beste 566 pertsonak (%6,1) 500 euro eta 1.000 euro bitartean erreskatatu dute. Tarte handiengan (50.000 euro baino gehiago), berriz, 631 pertsona daude, guztien %6,8.

Erreskatatutako zenbatekoari dagokionez, tarte altuen pisua nabarmen handiago da:

- 50.000 euro baino gehiago erreskatatzen dutenak (60 milioi euro), zenbateko osoaren %37,5 dira.
- 20.000-50.000 tartean daudenak %36,5 (58 milioi euro).
- 10.000–20.000 tartean daudenak zenbateko osoaren %14,2 erreskatatzen dute (23 milioi euro).
- 5.000-10.000 tartekoek 12 milioi euro erreskatatu dituzte (%7,5).
- 1.000-5.000 tartekoak: 6 milioi euro (%4,0).
- Beheko bi tarteak oso pisu txikia dute: 500 euro baino gutxiagokoak %0,1, eta 500-1.000 euro bitartekoak %0,3.

#### **6.2.4. Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak**


2017an kapital moduan erreskateak egin dituzten 9.316 pertsonetatik 5.162k (%55,4) pentsio publikoa ere kobratzen dute; beste 4.154 pertsonak (%44,6) ez dute pentsio publikoa gizarte aurreikuspeneko erreskatearekin bateratzen.

Pentsio publikoa eta kapital moduan egindako erreskatea bat egiten dutenek, ez dute erabiltzen gizarte aurreikuspeneko erreskatea bere bizitzan zehar izango duen pentsio publikoaren osagarri bezala. Baizik eta urte zehatz batean egindako aukeraketa bat da, hurrengoetan errepikatuko ez dena.

Guztira erreskatatutako 160 milioi eurotik, 122 milioi (%76,5) pentsio publikoarekin bateragarri egin dutenak metatzen dute. Eta beste 37 milioi euro (%23,5) erreskatatu dituzte pentsio publikorik jasotzen ez dutenek.


Batez beste erreskatea 23.655 eurokoa da pentsio publikoa ere jasotzen dutenentzat, eta 9.024 eurokoa besteentzat.

### Grafikoa 16 – Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak - 2017



Bestalde, pentsio publikoa kobratzen duten horiek 19.981 euroko batez besteko pentsioa jaso dute. Beraz, gehiago jasotzen dute gizarte aurreikuspeneko entitateetako erreskateetatik (23.655 euro) pentsio publikoetatik baino.

### Grafikoa 17 – Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak 2017



### 6.3. Errenta moduan eta kapital moduan egindako erreskateak

Gizarte aurreikuspeneko erreskateak egiteko modua nabarmen aldatu da azken hamar urteetan: 2008. urtean erreskate guztien %62,9a errenta moduan egiten zen, eta 2017an, aldiz, %53,1a egiten da, hau da, 9,8 puntu gutxiago.

Era berean, kapital moduan egindako erreskateak 13.203 izatetik (%37,1) 9.316 izatera (%46,9) pasa dira 2008tik 2017ra.

**Taula 48. Errenta eta kapital moduan egindako erreskate kopuruaren bilakaera**

	Errenta moduan		Kapital moduan		Guztira			
	Kopurua	Bar. %	Kopurua	Bar. %	Kopurua	Bar. %	% errenta	% kapital
<b>2008</b>	22.343		13.203		35.546		62,9	37,1
<b>2009</b>	23.460	5,0	14.477	9,6	37.937	6,7	61,8	38,2
<b>2010</b>	24.516	4,5	14.746	1,9	39.262	3,5	62,4	37,6
<b>2011</b>	24.722	0,8	16.253	10,2	40.975	4,4	60,3	39,7
<b>2012</b>	26.146	5,8	14.920	-8,2	41.066	0,2	63,7	36,3
<b>2013</b>	27.292	4,4	14.120	-5,4	41.412	0,8	65,9	34,1
<b>2014</b>	21.976	-19,5	13.714	-2,9	35.690	-13,8	61,6	38,4
<b>2015</b>	16.434	-25,2	15.000	9,4	31.434	-11,9	52,3	47,7
<b>2016</b>	15.875	-3,4	12.431	-17,1	28.306	-10,0	56,1	43,9
<b>2017</b>	10.541	-33,6	9.316	-25,1	19.857	-29,8	53,1	46,9
<b>2008/2017</b>		-52,8		-29,4		-44,1		

Aldaketa hori, oraindik ere nabarmenagoa izan da zenbatekoa begiratuta:

- 2008an erreskatatutako zenbateko osoaren %38,3a errenta moduan egiten zen, eta beste %61,7a kapital moduan; 356 milioi eurotik 136 milioi euro errenta bezala eta 220 milioi euro kapital moduan.
- 2017an errenta moduak egindako erreskateak 57 milioi euro izan dira eta kapital moduan egindakoak 160 milioi euro; zenbateko osoaren %26,3 eta %73,7, hurrenez hurren.

Hemen ere joera aldaketa urtez urte nabari da 2012 arte; hor, PFEZren arau aldaketa dela-eta, errenta moduan egindako erreskateak pisua irabazi dute 2011rekin alderatuta. 2013. urtean 2012ko egoera



mantentzen da eta ondorengo urteetan errenta moduan egindako erreskateak berriro pisua galtzen dute. Halere, 2008tik aurrera erreskate guztiaren erdia baino gehiago kapital moduan egiten da.

**Taula 49. Errenta eta kapital moduan egindako erreskateen zenbatekoen bilakaera**

	Errenta moduan		Kapital moduan		Guztira			
	Zenbatekoa	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	% errenta	% kapital
<b>2008</b>	136.237.625		219.581.173		355.818.798		38,3	61,7
<b>2009</b>	144.160.419	5,8	233.096.657	6,2	377.257.076	6,0	38,2	61,8
<b>2010</b>	154.237.984	7,0	263.991.201	13,3	418.229.185	10,9	36,9	63,1
<b>2011</b>	162.990.707	5,7	360.197.636	36,4	523.188.343	25,1	31,2	68,8
<b>2012</b>	177.742.598	9,1	223.017.309	-38,1	400.759.907	-23,4	44,4	55,6
<b>2013</b>	192.988.985	8,6	246.638.361	10,6	439.627.346	9,7	43,9	56,1
<b>2014</b>	127.571.292	-33,9	206.549.120	-16,3	334.120.412	-24,0	38,2	61,8
<b>2015</b>	95.025.688	-25,5	225.034.282	8,9	320.059.970	-4,2	29,7	70,3
<b>2016</b>	103.236.748	8,6	212.180.722	-5,7	315.417.470	-1,5	32,7	67,3
<b>2017</b>	56.848.303	-44,9	159.592.706	-24,8	216.441.009	-31,4	26,3	73,7
<b>2008/2017</b>		-58,3		-27,3		-39,2		

Zenbatekoak eurotan